



DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Enpresa eta Lurralde Lehiakortasuna, Berrikuntza eta Jasangarritasuna

DOKTOREGO-TESIA

**Irabazi-asmorik gabeko erakundeen
jarduerak eragiten duten inpaktu
sozialaren azterketa**

Nerea Goikoetxea Gazpio

Donostian, 2024ko ekainak 21



Deustuko Unibertsitatea

Enpresa eta Lurralde Lehiakortasuna, Berrikuntza eta Jasangarritasuna

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen jarduerek eragiten duten inpaktu sozialaren azterketa

Nerea Goikoetxea Gazpiok Lorea Narvaiza Cantínen eta Alazne Mujika Alberdiren zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Deustuko Unibertsitatean Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostian, 2024ko ekainak 21

Zuzendariaren sinadura:	Zuzendariaren sinadura:	Tesigilearen sinadura:



Deustuko Unibertsitatea

Enpresa eta Lurralde Lehiakortasuna, Berrikuntza eta Jasangarritasuna

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen jarduerek eragiten duten inpaktu sozialaren azterketa

Nerea Goikoetxea Gazpiok Lorea Narvaiza Cantínen eta Alazne Mujika Alberdiren zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Deustuko Unibertsitatean Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostian, 2024ko ekainak 21

Zuzendariaren sinadura:	Zuzendariaren sinadura:	Tesigilearen sinadura:



Izarren hautsa. Xabier Lete, 1976

“Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.

Ekin ta ekin bilatzen ditu,
saiatze hortan ezin gelditu,
Jakintza eta Argia.

Bide ilunak nekez aurkitu,
lege berriak noizpait erditu,
hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana Jakintza dugu: ezagutzuz aldatzea.

Ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz,
beti aurrera joatea.”

Laburpena

Duela gutxi arte, bazirudien finantza-informazioa nahikoa zela enpresek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek (*IAGE*) gizarteari egiten dioten ekarpena baloratzeko; azken urteotan, ordea, bai herritarrek, bai administrazio publikoak, bai akademikoek eta baita gainontzeko *stakeholder*ek ere, jardueraren beste metrika mota batzuk aztertu nahi izan dituzte. Aldi berean, Ekonomia sozialeko erakundeek Garapen Jasangarriko helburuei egindako ekarpena eta enpresa-etikarekin duten konpromisoa ez dira oharkabean pasatu, ez Nazio Batuentzat, ezta nazioarteko beste erakunde batzuentzat ere.

Jarduna neurtzeko tresna eta eredu gehienak irabazi-asmoa duten enpresentzat garatu dira. Baina, azken 30 urteetan, ikertzaile eta profesionalengan gero eta interes handiagoa egon da *IAGE*ek sortutako jarduna neurtzeko. Gainera, *IAGE*en kopurua handitzen ari da, batez ere aurre egin beharreko arazo sozial konplexuen kopurua gero eta handiagoa delako. 1980ko hamarkadatik aurrera, gero eta literatura gehiago argitaratu da *IAGE*en jarduerak sortzen duten inpaktu soziala neurtzeko sistemekin lotuta. Testuinguru horretan, jardun hori neurtzeko nozioak izateak erakunde horien kudeaketa-arazoetako eta kanpo-kontrolako konponbidean lagundu dezake.

Ikerketa-lan honek *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza handitu nahi du, eta horretarako, bi esparrutatik landuko da ikerketa gaia: esparru teoriko batetik lehenik eta esparru enpiriko batetik, ondoren. Arlo teorikoan kontzeptuen garapen bat egingo da eta egungo literaturaren ikuspegi integrala deskribatzen duen berrikuspen sistematiko baten emaitzak aurkeztuko dira. Arlo enpirikoari dagokionez azaldutako metodologia mistoa jarraitzen duen kasu-azterketa bat burutuko da. Hala, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza handitzea den helburua lortuz eta etorkizuneko lan-ildo nagusiak identifikatuz.

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet ikerketa-lan hau egiten zuzenean edo zeharka lagundu duten pertsona guztiei.

Hasteko, arlo akademikoan, eskerrak eman nahi dizkiot Deustuko Unibertsitateari, duela hogeita hamar urte Zuzenbide Ekonomikoko gradutik hasi eta ondoren eman ditudan pausu guztietan nire bidelagun izateagatik.

Eskerrik beroenak Iñaki Peñari, Doktorego Programa honetako koordinatzaileari, elkarrekin izan genuen lehen elkarrizketa hartatik abiatu eta ondorengo prozesu osoan nigan jarritako konfiantzagatik.

Era berean, bihotzez eman nahi dizkiet eskerrak Lorea Narvaiza eta Alazne Mujika doktoreei tesi honen zuzendari gisa egindako lan bikainagatik. Proiektu hau arrakastaz amaitu izana beraien denbora eta dedikazio ordainezinari esker eta beraien aholku eta ekarpen baliotsuei esker izan da. Eta, batez ere, eskerrak eman nahi dizkiet prozesu guztian zehar hankak lur gainean mantentzen erakutsi izanagatik, bai lur azpian sentitu izan naizenetan eta baita aireratzeko imintzioa egin izan dudanetan ere. Ezin izan dut bidelagun hoberik izan. Eskerrik asko bioi.

Mila esker *ASPANOGI*ko langile Nekane, Marijo eta Unairi, prozesu honetan zehar behar izan dudan guztietan besoak zabalik artatu izanagatik eta bereziki Mariari, hainbestetan denbora lapurtu eta beti prestutasunez eskatutako datu, informazio, txosten eta gainontzekoetan laguntza eman izanagatik.

Eta arlo pertsonalean, mila esker Aitari, bizitzan konstantziaz eta pertseberantziaz zertxobait lortu daitekeela erakutsi izanagatik; eredu ona izan dut!

Mila esker Amari, gauzen garrantzia erlatibizatzen eta bakoitzak norbere burua umorez begiratzeko erakusteagatik. Horrela hartu izan ez banu, ezinezkoa zatekeen prozesu honen amaierara iristea.

Mila esker anai-arrebei, nahi adina elkar ikusten ez dugun arren, edozertarako hor zaudetela jakitea ederra delako.

Mila esker Ixaxkun, Leire, Ametza eta Kitiri, bizitzan momentu gordinak pasatzea tokatzen ari zaigun arren, bidea leundu eta goxatzeko elkarren babesa daukagula sentitu arazteagatik. Handia da hori.

Mila esker Asteasuko kuadrillari, seguru asko zuek kontziente izan gabe prozesu honen guztiaren pisua hainbatetan arindu izanagatik, bai ostiraletako egonaldietan eta baita gainontzeko irteera eta planetan ere.

Mila esker Iñigo nire lehengusu maiteari, nire ikerketa-lan honetako testuarekin magia egin izanagatik. Eta mila esker Amaia nire euskaltzain kuttunari, testuko hitz eta esaldiei gure hizkuntzaren distira atera izanagatik.

Mila esker ikerketa-lan honen prozesu guztian zehar nire lanari buruz galdetu eta interesa azaldu duzuen gainontzeko senide eta lagun guzti-guztiei. Bihotzez, mila esker.

Eta azkenik, aparteko eskerrak etxekoei: Oibar, Eijer, Ahetze eta Ixabari, amak amets bat bete zezan bere umore aldaketak eta denbora falta ulertzeko beti erakutsi duzuen pazientzia eta heldutasunagatik. Eta mila esker zuri, Ion, proiektu honetan ere, nigan hain era sakon eta leialean sinesteagatik. MILA ESKER.

Ion, Oibar, Eijer, Ahetze eta Ixabarentzat

*ASPANOGI*rentzat, eta beste ekonomia mota bat posible dela
sinesten duzuen eragile guztientzat, segi dezagun mundu hobeko bat eraikitzen!

Aurkibidea

1	Sarrera	1
1.1	Sarrera	1
1.2	Gaiaren garrantzia	3
1.3	Ikerketaren helburuak eta metodologia	6
1.4	Egitura	8
2	Ekonomia soziala eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	11
2.1	Ekonomia soziala sistema sozioekonomikoan: kontzeptualizazioa eta jokatzen duen papera	11
2.1.1	Kontzeptuen berrikuspena	12
2.1.2	Ekonomia sozialak sistema sozioekonomikoan duen zeregina	32
2.2	<i>IAGE</i> ak ekonomia sozialean	41
2.2.1	<i>IAGE</i> ak eta ongizate-estatua	41
2.2.2	<i>IAGE</i> en eta estatuaren arteko harreman-motak	47
2.2.3	Ikuspegi teoriko berriak	53
2.3	Kapituluaren laburpena eta ondorioak	58
3	<i>IAGE</i>ak, inpaktu soziala eta <i>IAGE</i>en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala neurtzeko sistemak	63
3.1	Sarrera	63
3.2	<i>IAGE</i> ak: definizioa	65
3.2.1	<i>IAGE</i> aren definizio europarra	66
3.2.2	Enpresa sozialaren definizio anglosaxoia	67
3.2.3	<i>IAGE</i> ak Espainian	69

AURKIBIDEA

3.3	Inpaktu soziala: definizioa	70
3.3.1	<i>Inpaktu</i> terminoaren definizioa	70
3.3.2	Inpaktu sozialaren definizioa	71
3.4	<i>IAGE</i> en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala neurtzeko sistemak	74
3.4.1	<i>ISNS</i> en berrikuspen sistematikoaren plangintza <i>IAGE</i> etan	75
3.4.2	<i>IAGE</i> en <i>ISNS</i> en berrikuspen sistematikoa	76
3.4.3	Txostena eta zabalkundea	77
3.4.4	Berrikuspenaren emaitzak	79
3.4.5	Berrikusketaren emaitzen azterketa	82
3.4.6	Atalaren laburpena	93
4	Metodologia	95
4.1	Sarrera	95
4.2	Ikerketa metodologiaren hautaketa eta justifikazioa	96
4.2.1	Metodologiaren hautaketa eta justifikazioa	96
4.2.2	Kasu-azterketaren hautaketa eta justifikazioa	99
4.3	Kasuen azterketaren diseinua	101
4.3.1	urratsa: Ikerketaren eta berrikuspen teorikoaren helburuak zehaztea	102
4.3.2	urratsa: Kasuaren hautaketa eta analisi-unitatea	103
4.3.3	urratsa: Ebidentzia biltzea	109
4.3.4	urratsa: Ebidentziaren azterketa	134
4.3.5	urratsa: Azterketaren emaitzak eta ondorioak idaztea	139
4.4	Kapitulua laburpena	139
5	Emaitzak	143
5.1	Sarrera	143
5.2	Teknika kualitatiboa. Elkarriketak	143
5.3	Teknika kuantitatiboa. <i>SROI</i>	159
6	Ondorioak, mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak	179
6.1	Ondorio orokorrak	179
6.2	Mugak	187
6.3	Etorkizuneko ikerketa-ildoak	191
	Bibliografia	193

Eranskinak	229
1. Eranskina. ASPANOGIko elkarrizketak	229
2. Eranskina. Bazkideen orriak	273
3. Eranskina. Eusko Jaurlaritzako ebazpena (2023-HSD-000980) . .	279
4. Eranskina. Foru Aldundiaren hitzarmena	357
5. Eranskina. Aspanogi III. eranskina	379

Irudien zerrenda

3.1	Inpaktu balioen katea (Clark, C. eta Rosenzweig, W., 2004). <i>Input</i> : Ekintzan jarritako iturria. <i>Activities</i> : Ekintzak eragindako jarduerak. <i>Output</i> : Emaidza neurgarria. <i>Outcome</i> : Gizarte sisteman eragindako ondorioa. Inpaktua: Edozein modutan gertatuko litzateken hori <i>outcome</i> ari kenduta lortzen den emaitza. <i>Goal alignment</i> : Helburuen lorpena. Iturria: autoreak sortua.	72
3.2	Argitalpen kopurua urteko. Iturria: autoreak sortua.	79
4.1	<i>ASPANOGI</i> ren jardueren eskema. Iturria: autoreak sortua <i>ASPANOGI</i> ko datu iturrietatik abiatuta (2024)	118
5.1	Egindako elkarrizketetan jasotako erantzunen gainean osatutako hitz-hodeia, termino ohikoenak azaleratzen dituen. Iturria: autoreak sortua.	157

IRUDIEN ZERRENDA

Taulen zerrenda

2.1	Taulan honetan ekonomia sozialarekin lotutako ikuspegi teoriko nagusiak laburbiltzen dira. Iturria: autoreak sortua.	31
2.2	Taula honetan ekonomia sozialaren funtzioak sistema sozioekonomikoan ikuspegi ekonomiko ezberdinen arabera sailkatzen dira. Iturria: autoreak sortua.	59
3.1	Inpaktu sozialen definizioak eta interpretazioak. Iturria: autoreak sortua.	73
3.2	Artikulu-kopuruaren banaketa bost urteko aldien arabera antolatuta. Urte banaketa bakoitzeko argitalpen kopurua (#) eta kopuru horren portzentaia ageri dira (%). Iturria: autoreak sortua.	78
3.3	Egilea eta argitalpen kopurua irudikatzen da taula honetan. Argitaratutako artikulu kopurua (#) eta kopuru horri dagokion portzentaia (%) aztertu daiteke autore jakin bakoitzeko. Iturria: autoreak sortua.	80
3.4	Argitalpen aldizkariak eta aldizkari bakoitzak argitaratutako artikulu kopurua (#) zein kopuru horri dagokion portzentaia (%) irudikatzen da taula honetan. Iturria: autoreak sortua.	81
3.5	Argitalpen kopurua herrialdeka. Argitaratutako artikulu kopurua (#) eta kopuru horri dagokion portzentaia (%) irudikatzen da taulan herrialde bakoitzaren arabera antolatuta. Iturria: autoreak sortua.	82
3.6	Ikuspegi teorikoen aurkikuntzen laburpen. Iturria: autoreak sortua errebisio bibliografian oinarritua.	85
3.7	Ikuspegi praktikoen aurkikuntzen taula. Iturria: autoreak sortua errebisio bibliografikoan oinarritua.	90
3.8	<i>SROI</i> aren erronken laburpena. Iturria: autoreak sortua	91

TAULEN ZERRENDA

4.1	Arazoaren planteamendua deskribatzen da taula honetan, metodologia kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko aldeak laburbil- duz. Iturria: Corbetta (2003).	98
4.2	Kasuak aztertzeke ereduak. Iturria: Yin (1989 eta 1994).	104
4.3	<i>ASPANOGI</i> k jasotako aitortzak. Iturria: autoreak sortua.	106
4.4	<i>ASPANOGI</i> k eskainitako zerbitzuak. Iturria: autoreak sortua.	106
4.5	<i>ASPANOGI</i> rekin harremana duten pertsona eta erakundeak eta haien izaera. Iturria: autoreak sortua.	107
4.6	Tesi ikerketan zehar egindako elkarrizketen inguruko informazio bil- tzen duen laburpen taula. Iturria: autoreak sortua.	112
4.7	Datuak biltzeko teknikak kasuaren azterketan: abantailak eta era- gozpenak. Iturria: autoreak sortua Villarreal (2006) oinarri hartuta.	113
4.8	<i>Stakeholder</i> hautatuak, baztertuak eta arrazoiak laburbiltzen dira taula honetan. Iturria: autoreak sortua.	126
4.9	<i>Inputak</i> , <i>Outputak</i> eta <i>Outcomeak</i> . Iturria: autoreak sortua	127
4.10	<i>Outcome</i> bakoitza neurtzeko adierazlea eta finantza-proxy-a. Itu- rria: autoreak sortua.	131
5.1	Stakeholderren identifikazioa. <i>Stakeholder</i> bakoitzarentzat erabil- tzen diren dimentsioak zehazten dira taulan Eragina , Boterea , Interesa , Guztira eta Lehentasuna zutabeetarako. Dimentsioen eskala: 1 (baxua); 2 (ertaina); 3 (altua). Iturria: autoreak sortua Ariza- Montes et al., 2021-ean oinarrituta	158
5.2	Inputen kuantifikazioa. Guztira <i>inputak</i> = 114.106,26€. Iturria: autoreak sortua.	160
5.3	<i>Input</i> , <i>Output</i> , <i>Outcome</i> , neurtzeko adierazleak eta <i>finantza-proxyak</i> .	167
5.4	<i>Outputen</i> kuantifikazioa eta <i>Inputekin</i> alderatuta <i>SROI</i> emaitza. Iturria: autoreak sortua.	176

Terminoen zerrenda

IAGE: Irabazi Asmorik Gabeko Erakundea

ISNS: Inpaktu Soziala Neurtzeko Sistema

SROI: Social Return On Investment

ASPANOGI: Gipuzkoako Minbizidun Adingabeen Familien Elkarte

1. KAPITULUA

Sarrera

1.1 Sarrera

1776an, Adam Smith filosofo eskoziarrak Ekonomiaren historiako libururik ospetsuena (*The Wealth of Nations*) argitaratu zuen. Bertan, Smithek Ekonomiaren funtsezko galdera bati heltzen zion: norberaren interesa bateragarria al da gizarte on batekin? Berak argudiatu zuen gizarteari ondo doakiola eta harmonia lortzen duela gizartea osatzen duten pertsonen beren intereserako soilik jarduten dutenean. Gobernuak ahalik eta gutxien egin beharko lukete, eta negozioek eta merkatuek, berriz, nahi dutena. Liburua argitaratu eta berrehun urtera, egon dira presidenteak munduan printzipio horiek defendatu eta Smith inspirazio gisa hartu dutenak.

Bigarren mundu-gerra amaitu zenean eratu zen hazkunde-ekonomiko eredua, ordea, oso kritikatu izan da XXI. mendea hasi bezain laster. 2008ko irailaren 15ean Lehman Brothers AEBetako inbertsio-bankuak porrot egin zuenetik, merkatu-ekonomiaren sistema urratu duten ekintza ugari ikusi ditugu. Ildo horretan, garrantzitsuak izan dira D. Diamond, P. Dygvig eta B. Bernankeren ekarpenak (2022ko Ekonomiako Nobel Sariak). Bere ikerketek asko hobetu dute bankuek eko-

nomian duten zereginaren ulermena, eta haren analisisiek garrantzi praktiko handia izan dute finantza-merkatuak arautzeko eta finantza-krisiei aurre egiteko.

Zentzu berean, Vince Cable (2015) Enpresetarako, Informaziorako eta Ezagutzarako Estatu Idazkari britainiarra izandakoak kapitalismo-eredu berri batez hitzegi izan du, epe luzerako balioaren sorreran oinarritua, epe laburreko mozkinetan baino gehiago. Cablek eredu ekonomiko berri horri *kapitalismo arduratsua* deitu izan dio.

Bide beretik, John Kay (2010) ekonomialari britainiarrak inbertsiogileen eta inbertsioen onuradunen arteko harremana aldatzea proposatu zuen. Erresuma Batuko balore-merkatuak eraldatzeko hainbat neurri proposatu zituen, hala nola kudeatzaileen konpromisorako pizgarriak eta kalitatea hobetzea, inbertitzaileen eta enpresen arteko konfiantza-harremanak berrezartzea, merkatuetako eragileen artean kultura-aldaketa sustatzea, pizgarriak lerrokatzea, zuzendaritza-taldearen ordainarien eta enpresaren eta bezeroen epe luzerako bilakaeraren arteko harremana hobetuz.

COVID-19aren pandemiak markatutako ondorengo egoerak, enpresen lan soziala eta lankidetzaren publiko-pribatua inoiz baino beharrezkoago egiten ditu. Horregatik, salbuespeneko egoera honetan, agerian geratu dira, besteak beste, gizarte-mailan arlo askotan hobetzeko ditugun aukerak.

Gaur egun, enpresek komunitatera bideratutako proiektuekiko konpromisoa hartzeaz gain, Nazio Batuek ere ezinbestekotzat jotzen dute lankidetzaren publiko-pribatua beren 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko (Nazio Batuen Goi Bilera, 2022).

Gure herrialde eta inguruko herrialdeetan, komunitatera bideratutako proiektu pribatuen fenomenoak herabeki hasi zen, eta sendotu egin zen gai horiekiko inte-

res publikoa ere handitu ahala. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan, enpresa batzuek interes komunitarioko jarduera batzuen kudeaketa profesionalizatzea komeni zela planteatzen hasi zen. Enpresak beren ingurura begiratzen hasi ziren kudeaketa-ereduak bilatzen, eta tradizio luzeko ekimen interesgarriak aurkitu zituzten Espainian, hala nola, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen (*IAGE*) mugimendua edo ondo sendotutako fundazio filantropiko batzuk.

Testuinguru horretan, bai literatura akademikoak bai enpresa-jarduerak, lehen pentsaezinak ziren galdera berriak planteatzen dizkigute duela hogeita hamar urtetik hona, hala nola:

1. Kontabilitate finantzarioak enpresaren errealitate osoa islatzen al du?
2. Enpresak *stakeholder* jakin batzuekin jarduten badu bere jarduera arruntan, zergatik ez da inguruabar hori islatzen enpresaren kontabilitatean edo beste dokumentu batzuetan?
3. Egokiak al dira proiektu sozialak finantzatzeko dauden finantza-tresnak?
4. Erakunde publiko edo pribatuak beharko lirateke gure herrialdean inbertsio sozialak garatzeko?

1.2 Gaiaren garrantzia

Aipatu dugun bezala, azken 30 urteetan, gizarte justua eraikitzen laguntzea helburu duen ekonomia sozialaren fenomenoak, hazkunde nabarmena izan du hainbat herrialdetan (Defourny eta Nyssens, 2008; Kim et al., 2024). Ekonomia sozialak berebiziko garrantzia du garapen jasangarrirako (Lee, 2020). Europako Batzordearen arabera, ekonomia sozialak 2,8 milioi enpresa biltzen ditu (hau da, Europako enpresa guztien %10) eta 13,6 milioi langile baino gehiago enplegatzen ditu Europar Batasunean (hau da, EBko biztanleria aktiboaren %6 2021an) (Europako

Ekonomia eta Gizarte Batzordea, 2021). Irabazi-asmorik gabeko erakundeak (*IAGE*), ekonomia sozialaren parte diren aldetik, gure gizartean dauden arazo kritiko batzuei erantzuna emateko gai direnaren ustearekin eratzten dira, inpaktu sozialak sortuko dituztelarik (Thompson, 2000; Borzaga eta Defourny, 2001; Alvord et. al., 2004; Valcárcel et al., 2019). *IAGE*en artean, erakunde publikoak, fundazioak edo erakunde pribatuak, kooperatibak edo elkarteak, gobernu kanpoko erakundeak eta gizarte-enpresak daude.

*IAGE*ek bilatutako azken helburua balio sozialaren sorrera maximizatzea da, baina merkatura bideratutako jardueren bidez euren iraunkortasun ekonomikoa bermatu behar dutela ahaztu gabe. *IAGE*en izaera hibrido honek, hau da, aldi berean eta era orekatu batean emaitza sozial eta ekonomikoak bilatzeak (Bassi et al., 2015; Narvaiza et al., 2017) haien emaitzak neurtzeko eta garapen sozioekonomikoari egiten dioten benetako ekarpena erakusteko beharra bereziki azalarazten du (Bull eta Crompton, 2006; Marks eta Hunter, 2008).

Horrela, *IAGE*ak, oro har, gizartearen ikuspegitik emaitza jakin batzuk lortzera bideratzen dira, merkatuan irabazi-asmoa duten erakundeekin lehiatzeko helbururik gabe. Beren jarduerak dohaintza publikoen eta enpresen eta norbanakoek ekarpenen bidez finantzatzen dituzte batez ere (Austin, 2000; Ahrens eta Chapman, 2004).

Ikuspegi sozialaz gain, *IAGE*ek ere malgutasun eta sormen handiagoarekin jokatu behar dute irabazi-asmoa duten erakundeekin alderatuta. Malgutasunari dagokionez, etengabe sortzen diren behar sozial berrietara egokitzeko gaitasuna eskatzen zaielako, eta sormenari dagokionez, onurak maximizatzea helburu duten jarduerak garatu behar dituztelako (Corral-Lage J. et al., 2020).

Testuinguru horretan, *IAGE*en jarduerak sortutako inpaktu soziala neurtzeko sistemek (*ISNS*) negozio baten plangintzan eta kudeaketan erabilitako errendimendu-

neurrien multzo multidimentsionala izatearen funtsezko zeregina hartzen dute beren gain (Bourne et al., 2003), “zeina antolakundearen, misioaren, estrategiaren eta helburuen definizio sistematiko baten bidez gauzatzen den, arrakastaren faktore kritikoaren eta errendimenduaren funtsezko adierazleen bidez neur daitezkeenak, prozesuan erakundea mantentzeko ekintza zuzentzaileak egin ahal izateko” (Waal, 2007).

*IAGE*en errendimenduaren neurketa baliagarria izan liteke erabakiak hartzeko garaian. Neurketa horren bidez, *IAGE*eko kudeatzaileei beren aukerak bideratzeko eta negozio-eragiketen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko informazioa emango die (Arena eta Azzone, 2005). Prozesu horretan, jarraipena eta ebaluazioa funtsezkoak dira, erakundearen jarduerak eragiten duten inpaktuan *stakeholder* desberdinak inplikatzen (Valcárcel et al., 2019).

Horrez gain, barneko eta kanpoko eragileekiko erantzukizuna eta gardentasuna bermatzen ere lagun lezake (Arena eta Azzone, 2010). Izan ere, sarri, boluntarioek, langileek, tokiko komunitateak, enpresek, norbanakoek eta bankuek *IAGE*etan inbertitzen dute baina inbertsioen etekinari buruzko informazio falta izaten dute (Young eta Salamon, 2002; Harding, 2004; Alexander et al., 2010).

Aldez aurretik, autore ezberdinek aztertu izan dituzte *IAGE*en *ISNS*ak eta hauen bilakaera lau fasetan egituratu daiteke: Lehen fase batean (joan den mendeko 20ko hamarkadan), *ISNS*ak kostu operatiboan eta eraginkortasunean zentratutako ikuspegi batetik aztertzen ziren. 50ko hamarkadatik aurrera, *IAGE*aren barneko sail eta departamentu berriak sartu ziren azterketan. 60ko hamarkadatik aurrera, denbora eta bezeroaren gogobetetzea bezalako dimentsio berriak txertatuz joan ziren azterketan eta aurrerago, erakundeaz haratago zihoazen beste erakunde batzuei eragiten zien gizarte eta ingurumen alderdiak aztertzen hasi ziren (80ko hamarkadatik aurrera).

Bilakaera honek adierazten du *ISNS* batek sistema multidimentsionala izan behar duela eta stakeholder ezberdinek parte hartzen dutela *ISNS*en azterketan. Horrek esan nahi du *IAGE*en barne-jarduna ez ezik, erakundetik kanpokoak neurtzeko sistema konplexuagoak, zehatzagoak eta erabakiak hartzeko egokiagoak ere behar direla (Bourne et al., 2003).

Beraz, *IAGE*en *ISNS*en aplikagarritasuna erronka bat da, *ISNS*en eskakizunen eta *IAGE*en jardunean berebiziko garrantzia duten alderdi sozialen arteko lerrokadura beharrezkoa delako (Ebrahim 2002; Ebrahim 2003; Ebrahim 2005; Ebrahim eta Rangman, 2014).

Erronka horri jarraiki azken hogeita hamar urteetan *IAGE*en *ISNS*ei buruzko gero eta azterlan gehiago egin diren arren, gure ezagutza iristen den arte ez da egungo ezagutzen berrikuspen sistematiko sakonik egin, protokolo zorrotz baten bidez identifikatutako azterlan garrantzitsu guztiak aintzat hartuko dituen prozesu garden eta errepikagarri baten bidez (Tranfield et al., 2003). Arlo horretan ekarpen bat egite aldera, Goikoetxea et al.(2022)-en lanean oinarrituta, *IAGE*en *ISNS*ei buruz egindako ikerketak termino kuantitatiboetan azaltzen dira eta *IAGE*en *ISNS*en ikerketaren esparruan egindako ekarpen nagusienak zehazten dira. Hala, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ulermena hobetuko da eta etorkizuneko lan-ildoetarako ikerketa-gap nagusiak zehazteko moduan egongo gara.

1.3 Ikerketaren helburuak eta metodologia

Aurrekoa kontutan izanda, lan honen helburu orokorra *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzea da. Helburu espezifikoak ondorengo hauek dira:

1. *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari eta haren balio monetarioari buruzko informazio zehatzagoa eta gardenagoa lortzea.
2. *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialaren balio monetarioa adierazteko tresna egoki bat bilatzea.
3. *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuek ere erabili ahal izatea beren gizarte-ekarpenaren balio monetarioa kalkulatzeko garaian.
4. Beste erakunde batzuetan antzeko helburuekin erabiltzen ari diren eta *IAGE*ek finantzatutako beste proiektu batzuei aplikatu dakizkiekeen inpaktu soziala ebaluatzeko eta baloratzeko metodoak ezagutzea.
5. *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berriarekin, finantzatu beharreko proiektuak hautatzeko prozesuak eta horien betearazpenaren jarraipena erraztea.

Balio monetario horren ezagutzak aukera emango lieke erakunde horiei administrazioarekiko harremanak aldatzeko, egungo lan-eredutik eredu bidezkoago baterako bidean.

Beraz, testuinguru horretan kokatuta, lan honen helburua da *IAGE*en jardueren inpaktu sozialari buruzko ezagutza berriarekin, inpaktu sozial hori ebaluatzeko eta baloratzeko metodoak garatzen laguntzea.

Bestalde, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko ikerlan honetan aukeratutako metodologia metodologia mistoa da. Izan ere, ikuspegi honek aukera ematen du *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala ulertzeko prozesuaren xehetasunak eta esperientziak jasotzeko, ingurunea testuinguruan kokatzeko eta datuen interpretazio-sakontasun eta

-aberastasun handiagoa lortzeko. Gainera, ikerketa metodologia mota honek aukera ematen digu datuak jasotzeko garaian teknika kualitatibo eta kuantitatiboak erabiltzeko.

Era berean, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko aukeratu den ikerketa-metodoa kasu-azterketa da. Izan ere, kasu-azterketak aukera ematen du *IAGE*en jarduerak testuinguru errealean ezartzeko prozesu osoa aztertzeko, hainbat ebidentzia-iturri erabiliz aldi berean.

1.4 Egitura

Ikerketa honek, arestian planteatutako helburuak betetzeko kapitulu batzuk ditu. Hauek funtsezko bi zatitan antolatzen dira: alde teoriko bat, gaiari buruzko literatura berrikusten duena, eta alde enpiriko bat, ikerketa honen metodologia, emaitzen analisisa eta ondorio nagusiak azaltzen dituena.

Ondoren, atal bakoitzaren edukia laburbiltzen da:

2. kapitulua: Bigarren kapitulua esparru teorikoan murgiltzen da. Lehenik eta behin, ekonomia sozialaren kontzeptuarekin lotutako ikuspegi teoriko garrantzitsuenak aztertuko dira, hau da, sektorea definitzen saiatzen diren hainbat ikuskera aztertzen dira. Horietako bakoitzak lokuzio edota kontzeptu desberdina erabiliko du, eta gainerako ikuspegi teorikoekin bat etorri behar ez duen errealitate zehatz bati egingo dio erreferentzia. Jarraian, kontuan hartzen diren sistema sozioekonomikoen barruan ekonomia sozialaren sektoreari ematen zaion edo jokatzen duen paperari buruzko informazioa emango da eta hori hainbat ikuspegitatik aztertuko da.

3. kapitulua: Atal honetan, eta ikerketa-lan honen esparru teorikoarekin jarraituz, ekonomia sozialaren barnean kokatzen den *irabazi-asmorik* gabeko erakundea

(*IAGE*) terminoa eta *inpaktu soziala* terminoa definituko dira. Ondoren, inpaktu soziala neurtzearen arrazoiei eta hau neurtzeko sistemen azterketari helduko zaio.

4. kapitulua: Kapitulu hau, alde enpirikoan murgiltzen da. Lehenik eta behin, ikerketa-lan honetan erabilitako metodologia justifikatu eta deskribatuko da. Segidan, ikerketa metodoaren hautaketaren azalpena egingo da (kasu-azterketa) eta ikerketa metodo hori justifikatuko da. Ondoren, ikerketa metodoaren diseinuan sakonduko da eta kasu-azterketaren diseinu metodologikoaren urratsak azalduko dira.

5. kapitulua: Kapitulu honetan, aurreko kapituluan sakondutako metodologia jarraituz, ikerketa honetan metodologia hori erabiltzetik ateratako emaitzak azalduko dira. Lehenik eta behin, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko prozesua oso zabala denez eta inplikaturako eragile bakoitzaren ikuspegia lortzea ezinbestekoa denez azterlan honetan erabilitako teknika kualitatiboen (elkarrizketen) emaitzak azalduko dira. Ondoren, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko prozesuan garrantzia izan duen hautatutako teknika kuantitatiboa (*SROI*) aplikatuzetik ondorioztatzen diren emaitzak azalduko dira.

6. kapitulua: Ikerketa-lan honi amaiera emateko, seigarren eta azken kapituluak azterlanetik ateratako ondorio orokorrak laburbilduko ditu, azterlanaren muga kontzeptual eta metodologikoak azalduko ditu eta etorkizuneko ikerketa-ildoak proposatuko ditu, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutzan aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

Ekonomia soziala eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak

2.1 Ekonomia soziala sistema sozioekonomikoan: kontzeptualizazioa eta jokatzen duen papera

*IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala aztertzeko ekonomia sozialaren ikuspegia funtsezko elementua da. Izan ere, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala aztertzeko eta zehazteko orduan garrantzitsua da jakitea, bai zer ulertzen den aztergai den eremua eta zer izendapen erabiltzen diren eremu horri buruz hitz egiteko, baita elkarreragiten ari den sistema sozioekonomikoaren arabera zer eginkizun ematen zaion sektoreari.

Zehazki, *IAGE*ak ekonomia sozialaren barruko elementu gisa kokatu daitezke eta beraz, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozial hori gertatu den zehazteko, ekonomia soziala aipatuko da. Ondorioz, sektoreari erreferentzia egiten dioten esamoldeak eta horietako bakoitzak zer esan nahi duen jakin beharko da.

Kapitulu honetan, esparru teorikoaren barruan, lehenik eta behin, ekonomia sozialaren kontzeptuarekin lotutako ikuspegi teoriko garrantzitsuenak aztertzen dira, hau da, sektorea definitzen saiatzen diren hainbat ikuskera aztertzen dira. Horietako bakoitzak lokuzio edota kontzeptu desberdina erabiliko du, eta gainerako ikuspegi teorikoekin bat egiten ez duen errealitate zehatz bati egingo dio erreferentzia.

Jarraian, kontuan hartzen diren sistema sozioekonomikoen barruan ekonomia sozialaren sektoreari ematen zaion edo jokatzen duen paperari buruzko informazioa emango da. Hori hainbat ikuspegitik aztertuko da: analisi orokorretik hasita, ekonomia sozialaren hainbat ikuspegi ekonomiko eta funtzio makroekonomiko, ongizate-estatu moten azterketatik eta ekonomia sozialaren eta Estatuaren arteko harreman-motetatik hasita, sektoreak sistema sozioekonomikoaren barruan zeregin aktiboa duela defendatzen duten ikuspegi teoriko berriak aztertzeraino.

Teoria horien guztien azterketak esparru teoriko egokia emango digu tesi honen aztergaia den ekonomia sozialaren definizioa, karakterizazioa eta zeregina ulertzeko.

2.1.1. Kontzeptuen berrikuspena

Esparru teorikoaren lehen atal honetan, Ekonomia Soziala terminoaren inguruan dagoen kontzeptuzko nahasmena argitzen saiatuko gara, funtsezko alderditzat jotzen baitugu.

Sektoreari lotutako edo erabilitako termino edo lokuzioetako batzuk honako hauek dira: Ekonomia Soziala, Gizarte Ekonomia, Hirugarren Sektorea, Gizarte Enpresa, Ekonomia Solidarioa, Ekonomia Alternatiboa, Borondatezko Sektorea, Irabazi-asmorik gabeko sektorea, Ekonomia Informala, Herri Ekonomia, Ekonomia Autogestionarioa.

Gainera, azken hamarkadetan enpresa-esperientzia berriak agertu dira, ekonomia sozialaren jatorrizko kontzeptuaren oso antzekoak edo hurbilekoak, eta, horren ondorioz, lotutako terminologia ugari agertu dira.

Jarraian, literatura zientifikoan ekonomia sozialaren kontzeptuarekin lotutako bost ikuspegi teoriko nagusiak jorratzen dira: gizarte-ekonomiarena, ekonomia solidarioarena, gizarte-enpresena, hirugarren sektorearena eta *IAGE*ena, termino orokorretan bat etorri arren, beste alderdi batzuetan nabarmen aldatzen direnak.

2.1.1.1. Gizarte-ekonomiaren ikuspegia

Gizarte-ekonomiaren kontzeptua da aztertzen diren kontzeptuen artean zaharrena. Gizarte Ekonomia terminoa XIX. mendean agertu zen, Charles Dunoyer frantziar ekonomialari liberalaren eskutik. 1850ean *Traité d'économie sociale* argitaratu zuen, non ekonomiaren ikuspegi morala defendatzen zuen. 1820-1860 aldian, pentsamendu-korronte bat garatu zen Frantzian, T.R. Malthusen eta S. de Sismondiren analisisen eraginez. Analisi horiek ekonomiaren benetako objektua, *gizakia eta ez aberastasuna*, mugatzen zuten, eta gizarte-ekonomialari izenez taldekatzen ziren (Monzón eta Chaves, 2012).

XIX. mendearen bigarren erdian, John Stuart Mill eta Leon Walras ekonomialari handien eraginekin, Gizarte Ekonomiaren kontzeptuaren birbideratze bat gertatu zen.

J. S. Millek, *Principios de economía política* lanean, langile-kooperatiben abantailak eta eragozpenak aztertu zituen, eta ondorioztatu zuen sustatu egin behar zirela, abantaila ekonomiko eta sozialak zituztelako.

Bestalde, Leon Walrasek, *Gizarte Ekonomiako Ikerketak: Gizarte aberastasunaren banaketaren teoria lanean*, 1896an, Gizarte Ekonomia Zientzia Ekonomikoaren

zaitzat jotzen zuen, justizia soziala jarduera ekonomikoan sartzen zuen diziplina ekonomikotzat.

Tradizioz, Gizarte Ekonomia hiru erakunde motarekin identifikatu izan da, kooperatibekin, mutualitateekin eta elkarteekin, sektorearen nukleo gogorra osatuz, eta, beraz, haren balioak dira Gizarte Ekonomiaren gaur egungo kontzeptuaren ezaugarri nagusiak inspiratzen eta zehazten dituztenak.

Autore hauek beren kontzeptuaren mugaketa berriena 2002an egin zuten, Koope-
ratiba, Mutualitate, Elkartea eta Fundazioen Europako Konferentzia Iraunkorrek
(CEP-CMAF) sustatutako Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Gutunean. Hauek
dira Gutunean jasotzen diren printzipioak:

- Pertsonaren eta sozietatearen xedearen lehentasuna kapitalaren gainetik.
- Borondatezko atxikipen irekia.
- Kideen kontrol demokratikoa (fundazioetarako izan ezik, horiek ez baitute bazkiderik).
- Kide erabiltzaileen interesak eta interes orokorra bateratzea.
- Elkartasun- eta erantzukizun-printzipioak defendatzea eta aplikatzea.
- Kudeatzeko autonomia eta botere publikoekiko independentzia.
- Soberakin gehienak garapen iraunkorraren, kideentzako zerbitzuen intere-
saren eta interes orokorraren aldeko helburuak lortzera bideratzea.

Gizarte Ekonomiaren egungo kontzeptua, ikuspegi akademikotik, *CIRIEC-International* (*International Centre of Research and Information on the Public, Social and Cooperative Economy*) erakundeak ematen du, Gizarte Ekonomiari buruzko azterlanen erreferentzia akademiko nagusia.

Definiziorik berriena Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak berak agindutako Monzón eta Chavesen 2012ko azterlanean agertzen da, baina azpimarratu behar da alde aurretik ekarpen zientifiko garrantzitsuak egin direla, eta ekarpen horiek Gizarte Ekonomiaren kontzeptu-mugaketa oso zehatza izan dadin lagundu dutela. Ekarpeneren artean: Desroche (1983), Defourny eta Monzón (1992), Barea eta Monzón (1995), Vienney (1994), Defourny et al. (1999), eta Demoustier (2003, 2006).

Gizarte-ekonomiaren definizio berriena honako hau da:

“Formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitze askatasunarekin, bazkideen beharrak merkatuaren bidez asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak ekoitziz, ziurtatuz edo finantzatuz, eta mozkinak edo soberakinak bazkideen artean banatzea eta erabakiak hartzea bazkide bakoitzak emandako kapitalarekin edo kotizazioekin zuzenean lotuta ez daudenak; horietako bati boto bat dagokio, edo erabakiak hartzeko prozesu demokratiko eta parte-hartzaileen bidez gauzatzen dira. Gizarte Ekonomiak, halaber, erabakitzeko autonomiaz eta atxikitze askatasunaz formalki antolatutako erakunde pribatuak biltzen ditu, merkatukoak ez diren zerbitzuak ematen dituztenak familien alde, baldin eta soberakinak badaude, eta zerbitzu horiek sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek ezin badituzte bereganatu” (Monzón eta Chaves, 2012:23).

Definizio horretan bi azpisektore bereizten dira (Monzón eta Chaves, 2012):

1. Merkatuko azpisektorea, nagusiki kooperatibek eta mutuek, kooperatibek, mutualitateek eta gizarte-ekonomiako erakundeek kontrolatutako enpresataldeek, antzeko beste enpresa batzuek eta gizarte-ekonomiako enpresen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuek osatua. Az-

pisektore hori osatzen duten erakundeen ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- Bazkideen beharrak asetzeko sortzen dira, hau da, normalean bazkide eta erabiltzaile izaera bikoitza sortzen da.
- Merkatu-ekoizleak dira, merkatuan jarduten dute eta ekonomikoki esanguratsuak diren prezioetan saltzen dituzte produktuak, eta hortik lortzen dituzte baliabide gehienak.
- Soberakinak bazkide-erabiltzaileen artean bana ditzakete, baina ez emandako kapitalaren proportzioan, baizik eta bazkideek erakundearekin egiten duten jardueraren arabera.

2. Merkatukoak ez diren azpisektoreak. Gehienbat elkarrekin eta fundazioek osatzen dute, eta zerbitzuak eskaintzen dizkiete hirugarrenei (familiei eta etxeei), merkatuetan merkaturatu ahal izateko, baina ekonomikoki esanguratsuak ez diren prezioetan. Azpisektore honetako erakunde gehienek funtzionamendu demokratikoa dute eta Gizarte Ekonomiaren ezaugarriak betetzen dituzte. Ongintzako, laguntzako eta laguntzako elkarrekin, sindikatuetan, elkarrekin profesionalak edo zientifikoak, kontsumitzaileen elkarrekin, alderdi politikoak, elizak edo erlijio-elkarrekin, eta gizarte-, kultura-, jolas- eta kirol-klubak sartzen dira. Salbuespen gisa, *Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko* erakundeak sartzen dira; izan ere, nahiz eta egitura demokratikoa ez izan, lehentasuneko edo interes orokorreko ondasunak hornitzeagatik sartzen dira.

Bi azpisektoreen ezaugarri komunak zazpi dira (Monzón eta Chaves, 2012):

1. Erakunde pribatuak dira.
2. Formalki antolatuta, berezko nortasun juridikoa dute.
3. Erabakitzeke autonomiaz.
4. Atxikitzeke askatasunarekin.
5. Emandako kapitalari lotu gabeko mozkinen balizko banaketa batekin.
6. Jarduera ekonomiko bat berez egiten dutenak.
7. Erakunde demokratikoak dira. Familien aldeko ez-merkatuko zerbitzuak ekoizten dituzten erakunde boluntario batzuk izan ezik (gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak).

Ikuspegi horretarako, irizpide diskriminatzaile nagusia erakundeen izaera demokratikoa da, *pertsona bat, boto bat* printzipioa, batez ere merkatuko azpisektoreko erakundeentzat, baldin eta haien gizarte-erabilgarritasuna ez bada egindako jarduera ekonomikoan oinarritzen, baizik eta beren helburutik eta funtzionamenduan txertatzen dituzten balio demokratiko eta parte-hartzaileetatik datorrenean. Hala ere, gizarte-erabilera ukazina duten ondasun sozialak edo lehentasunezkoak ekoizten dituzten Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeak sartzea onartzen da.

2.1.1.2. Ekonomia solidarioaren ikuspegia

Ekonomia Solidarioa Gizarte Ekonomiaren kontzeptiotik sortu zen, nahiz eta 70eko hamarkadatik aurrera deslotzen hasi zen, gaur egungo gizarteetan ekonomiak eta prozesu ekonomikoek duten zeregina ulertzeko beste modu batekin erlazionatuz.

Kapital-ekonomiaren alternatiba gisa planteatzen da, justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako produkzio-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harremanak eraikitzea helburu duena; pertsona eta haren lana sistema ekonomikoaren erdigunean jarriz, merkatuei pertsona guztien ongizatearen zerbitzurako eginkizun instrumentala emanez, eta *bizitza-proiektu etikoa* deituz (Da Ros, 2007).

Ez dago onartutako ekonomia solidario komunaren definiziorik, baina nolabaiteko adostasuna dago ekonomia solidarioaren kontzeptuaren izaera multidimentsionari buruz oraindik dagoen literatura eskasaren artean.

Ikuspegi horrekin lotutako egileen artean hiru dimentsio osagarri bereizten dira (Coraggio, 2011; Guerra, 2013, 2011; Martínez eta Álvarez, 2008): dimentsio teorikoa, ekonomiari buruzko paradigma alternatibo berri bat ezarri nahi duena; gizarte-eraldaketaren dimentsio politikoa, soziabilitate ez-kapitalistan oinarritutako eredu sozioekonomiko baterantz; eta dimentsio ekonomikoa demokrazian, autogestioan eta enpresaburu kolektiboetan oinarritutako antolamendu-mota espezifikoa batekin lotuta dago (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015).

Gainera, ez dago irizpide argi eta onarturik bere baitan hartzen duen errealitatearen mugaketa zehaztasunez zehazteko, Gizarte Ekonomiaren ohiko diskurtso-elementuak eta antolaketa-moduak erabiliz (Pérez de Mendiguren et al, 2009).

Autore gehienak bat datoz bi ikuspegi bereiztean. Alde batetik, Europaren ikuspegia, Quebecen lotura garrantzitsuak dituen jatorri frantses eta belgikarrekoa,

eta, bestetik, ikuspegi latinoamerikarra, batez ere Txilen, Argentinan eta Brasilen garatua.

Europako ikuspegiaren arabera, ekonomia solidarioak hiru ezaugarri bereizgarri ditu (Monzón eta Chaves, 2012):

1. Zein gizarte-eskariri erantzun nahi dien.
2. Ekimen horiek sustatzen dituzten eragileak.
3. Aldaketa sozialaren gurari esplizitua.

Ikuspegi horretatik, forma juridikoa ez da oso garrantzitsua, eta posizionamendu ekonomikoa hibridoa da, ekonomia solidarioa hiru poloren artean kokatzen dela ulertzen baitu: merkatua, estatua eta elkarrekikotasuna, merkatuaren, birbanaketaren eta elkarrekikotasunaren printzipioei dagozkien poloak (Laville, 1994).

Praktikan, kooperatibak eta elkarteak dira ekonomia solidario horren forma nagusiak, baina baztertu egiten dira, adibidez, gehien instituzionalizatutako kooperatibak eta merkatuak hutsaldutako kooperatibak, gizarte-eraldaketa urria dutelako.

Iberoamerikarren ikuspegitik, Ekonomia Solidarioa lotuago dago herri-ekonomiaren kontzeptuarekin, eta gehiago azpimarratzen du gizarte-eraldaketarako indar bat izateko ideia, globalizazio neoliberalaren ordeko gizarte-proiektu bat eramango duena, eta, gainera, neurri handiagoan erantzungo die pobrezia-, azpigarapen- eta gizarte-bazterketako arazoei (Razeto, 1993, 2007).

Azken batean, Gizarte Ekonomiaren ikuspegian du jatorria ikuspegi horrek; izan ere, unea iristen denean (70eko hamarkada), bere irismena zabaltzen du, beste erakunde sozioekonomiko batzuk sartuz, eta errealitate sozioekonomikoaren diskurtso eraldatzaileago bati heltzen dio.

Gaur egun, Ekonomia Sozial eta Solidarioa izena ere erabiltzen da, zeinarekin Ekonomia Solidarioaren ikuspegia Ekonomia Sozialaren ikuspegiarekin batu nahi den, Ekonomia Sozialaren definizioaren izaera zehatza Ekonomia Solidarioaren izaera eraldatzailearekin konbinatzen saiatuz.

2.1.1.3. Gizarte-enpresak

Gizarte-enpresa edo Enpresa Sozialaren kontzeptua sortzen ari den kontzeptua da, Europan eta Estatu Batuetan 90eko hamarkadan agertu baitzen, nahiz eta planteamendu askotariko literatura zabala izan.

Enpresa Sozial terminoaren sendotze akademikoa Europan lotuta dago EMES Europako Ikerketa Sareak hartzen duen garrantziarekin. Sare hori 1996an sortu zen, eta EB-15eko herrialde gehienetako ikerketa-zentroak biltzen ditu. Borzagaren eta Defournyren liburu kolektiboak (2001) eta Nyssens et al. (2006) dira haren jardueratik ondorioztatzen diren argitalpen garrantzitsuenak, eta Europan gaiari buruzko erreferentzia teoriko nagusiak dira.

Estatu Batuen kasuan, Enpresa Sozialaren kontzeptuaren gorakada akademikoak gora egin zuen Harvardeko Unibertsitateko negozio-eskolatik *Social Enterprise Initiative* sortu zenean. Mugarri horretatik aurrera, Columbia, Stanford eta Yale bezalako beste unibertsitate batzuek Gizarte Enpresa aztertzeke eta laguntzeko programak ezarri dituzte (Defourny eta Nyssen, 2006).

Bi korrante edo ikuspegi desberdin sortzen dira Gizarte Enpresaren ikuspegian, ikuspegi europarrean eta ikuspegi estatubatuarrean. Europako ikuspegiak enpresa sozialen dimentsio kolektiboa, izaera demokratikoa eta ekonomia ulertzeko eta egiteko modu desberdina azpimarratzen ditu. Estatu Batuen ikuspegiak irabazien banaketa eza azpimarratzen du, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat diru-sarrerak sortzeko alternatibatzat hartzen ditu gizarte-enpresak, *non-profit*

tradizioarekin harreman handiagoa izatearen ondorioz.

Definizioari dagokionez, ez dago adostasun argirik, Enpresa Sozialaren kontzeptua ez dago formalki definituta. Gehien erabiltzen den definizioetako bat EMES sareak proposatutakoa da. Definizio horretan, irizpide batzuk proposatzen dira, baina ez dira aurkezten erakunde batek gizarte-enpresatzat hartzeko bete behar dituen baldintzatzat, baizik eta Gizarte Enpresaren *mota ideala* deskribatzen duten preskripzio-irizpideak dira, Weberren terminoetan, eta horri esker bereiziko da zenbat hurbiltzen diren edo zenbat urruntzen diren proposatutako mota idealeko erakunde partikularrak (Defourny eta Nyssens, 2012).

Ezarritako irizpideak hiru taldetan banatzen dira (Defourny eta Nyssens, 2012):

1. Gizarte-enpresen ekonomia- eta enpresa-dimentsioak:

- Ondasunak ekoizten eta/edo zerbitzuak saltzen dituen etengabeko jarduera.
- Arrisku ekonomikoaren maila esanguratsua.
- Ordaindutako lanaren gutxieneko kopurua.

2. Gizarte-enpresen dimentsio sozialak:

- Helburu esplizitua, komunitateari mesede egiteko.
- Gizarte zibileko herritar edo erakunde talde batek abiarazitako ekimena.
- Mozkinen banaketa mugatua.

3. Gizarte-enpresen gobernu parte-hartzailea:

- Autonomia maila handia.

- Kapitalaren jabetzan oinarritzen ez den erabakitzeko ahalmena.
- Izaera parte-hartzailea, jarduerak eragiten dien hainbat alderdi inplikatzen dituena.

Enpresa Sozialaren definizio horrek eta hura mugatzen duten irizpideek, Defournyren eta Nyssensen hitzetan (2006), zubi bat eraikitzea ahalbidetzen dute Hirugarren Sektoreko bi tradizioren artean: mugimendu kooperatiboa eta irabazi-asmorik gabeko elkarteen eta kolektiboen tradizioa.

Gehien erabiltzen den beste definizioetako bat Gobernu Britainiarraren Merkataritza eta Industria Sailarena da (DTI): “Enpresa Sozial batek helburu sozialak ditu funtsean, eta soberakinak enpresan bertan edo komunitatean berrinbertitzen dira, helburu sozial horiek lortzeko, akziodunentzako edo jabeentzako irabaziak maximizatzeko beharrak gidatu beharrez” (DTI, 2002).

Enpresa Soziala kontzeptua definitzeko askoz saiakera gehiago daude (Borzaga eta Defourny, 2001; Demoustier, 2005; Travaglini, Bandini eta Mancinone, 2010; Campos, 2011; Dees, 2011; Contreras eta González, 2011; Moreira, Urriolagoitia eta Vernis, 2011; Spear eta Johnson, 2006).

Hala ere, Peattiek eta Morleyk (2008) adierazten duten bezala, definizio gehienak alderatuta, ondorioztatzen da gizarte-enpresek bi baldintza hauek betetzen dituztela:

1. Diru-sarrerak sortzen dituzte merkatuan, ondasunak eta zerbitzuak salduz (zentzu horretan, *enpresak* dira, eta ez elkarte edo erakunde komunitarioak).
2. Helburu esplizituak gizarte-arlokoak dira, eta ez merkataritzakoak; hau da, haien logika ez da etekinak lortzea.

Azken batean, nabarmendu behar da Gizarte Enpresaren ikuspegia azaleratzen ari den ikuspegia dela, eta haren definizioak oraindik ez duela formalizazio nahikorik, eta horrek arazoak sortzen dituela konparazioak egiteko edo emaitzak ebaluatzeko orduan.

2.1.1.4. Hirugarren sektorearen ikuspegia

Hirugarren Sektorearen kontzeptua herrialde anglosaxoietan azaleratzen da, sektore publikoa eta merkatua ez den errealitate sozioekonomikoa izendatzeko (Carrasco, 2009). Hau da, Hirugarren Sektorea bi poloren artean agertzen da: publikoa, Estatuak osatua, eta pribatua, merkatua adierazten duena.

Ikuspegi horretatik, Anheierrek eta Seibelek (1990) honako ondorio hauek atera zituzten beren obran:

- Hirugarren sektoreko erakundeak interesak dituzten erakundeak dira, eta, aldi berean, zerbitzuak ematen dituzte.
- Hirugarren Sektorearen egituraketari buruzko eredu nazionalak gehiago daukete integrazio soziopolitikoko funtzioen mende eraginkortasun ekonomikoko irizpideen mende baino.
- Testuinguru nazional bakoitzean nagusi den sozietate-erregulazioak Hirugarren Sektorearen orientazioaren eragina du (Europa Kontinentaleko herrialdeek Estatura gehiago bideratutako Hirugarren Sektore bat dute, eta herrialde anglosaxoiek, berriz, merkatutik hurbilago dagoen Hirugarren Sektore bat).

Hirugarren Sektorearen ikuspegiaren beste interpretazio bat Donatik (1996) soziologiaren ikuspegitik jorratzen duena da. Autore horren arabera, gizartea lau

azpistemaz edo polaritatez osatutako sistema gisa ulertzen da, Estatuaren eta merkatuaren arteko dualismoaren aurrean: merkatua, etekinaren arabera jarduten duten enpresen sistema gisa ulertuta; Estatuak; Hirugarren Sektorea, helburu solidarioek eraginda jarduten duten eta, lehenik eta behin, nahiz eta ez soilik, bitarteko solidarioak erabiltzen dituzten *IAGE* autonomoen multzoa; eta lehen mailako sareak, familia, ahaideak, lagun-taldeak eta sare informalak barne hartzen dituztenak.

Interpretazio horren arabera, hirugarren sektoreko erakundeek honako ezaugarri hauek dituzte (Herrera, 1998):

- Kultura propioa: altruismoa, dohaina, elkartasuna, konfiantza eta elkarrekotasuna.
- Normatibitate propioa: gizartea aldatzeko modu autonomoak sortu eta erabiltzen dira.
- Funtzionatzeko modu propioa: berezko antolamendu-formak adierazten dituen operatibitatea, baliabide partikularrak mobilizatzea eta eredu propioen arabera konbinatzea ezaugarri dutenak.
- Gizarte-eginkizun propioa: ondasun berriak sortzen espezializatzen da, ez publikoak ez pribatuak, harreman-ondasunak deiturikoak.

2. Gizarte-proiektuetan inbertitzen ari diren erakundeentzat, balorazioa egiteko egindako ebaluazioez gain, inbertsioen jarraipena egiteko tresna baliogarria izango da.
3. Tresna monetarioa denez, balorazio ekonomikoak eta azertu beharreko aldagaiak kalkulatzek aukera ematen du:
 - finantzaketa-erabakia hartu aurretik, proiektu batzuen eta besteen artean inbertitzeko erabakiari buruzko informazio gehiago edukitzea. Hala, bakoitzak sortuko duen balio sozialaren alderaketa egin daiteke, eta baita, onuradunengan izango duen inpaktuaren kuantifikazio monetarioa.
 - proiektuaren bizitzan zehar, desbideratzeen jarraipen erraza egitea edozein unetan.
 - proiektua edo haren finantzaketaren inpaktua amaitu ondoren, balio sozialaren sorkuntzaren zenbatekoa zehaztea eta baita gertatu ahal izan diren helburuen desbideratzeak kalkulatzeko.

Ekonomialariek eta finantza-ekonomiako ikertzaile batzuk batzuetan galdetu izan dute: erabil al daiteke finantza-ekonomiaren eredurik gizarte emaitzak baloratzeko? Erantzuna baiezkoa bada, zergatik erabili inpaktu soziala neurtzeko balorazio finantzario hutsa? Ez al da egokiagoa izango metodologia berri bat sortzea,

balorazio-metodoetatik erabat independentea eta desberdina inpaktu soziala neurtzeko?

Inpaktu soziala neurtzeko, enpresak baloratzeko dauden metodologietatik erabat aparteko metodologia bat sortzeko ahalegina egin liteke. Baina, egokiagozat jotzen dugu kostu-irabaziaren azterketan oinarritutako eredu hau erabiltzea. Izan ere, metodologia independente batekin lortuko liratekeen emaitzak ez lirateke hain adierazgarriak izango. Eraginkortasuna galduko litzateke eredia egitean, eta aplikazio bat izango luke eta guk aukeratutako tresna baino konparagarritasun txikiagoa.

Tresna hau aukeratzeko (*SROI*) kontuan hartu diren faktoreak hauek dira:

1. Kostu eta etekinaren analisiaren metodologia hainbat ikerlarik (Campbell, 2014; Lisi, 2018) baliozkotutako metodoa da, azterketa, ikerketa eta balioespere erreal eta emaitza sendoekin.
2. Balorazio-sistema ulergarria da, eta, oro har, inbertitzaileen eta finantzaizaileen unibertsoan ezaguna.
3. Azken urteetan egindako ikerketak eta analisiak (ondare historiko artistikoa, kultura edo ingurumena, gizarte-ekintzak dirutan kuantifikatzeko tresnak) irabazi-kostua aztertzeko, bide honetatik joan izan dira (Valcárcel, 2010) .
4. Inpaktu soziala neurtzeko egindako ikerketa askok eta egungo literaturak, batez ere mundu anglosaxoian, enpresak baloratzeko metodoak hartu dituzte oinarritzat (Kaplan eta Norton, 1996; Lisi, 2018; Campbell et al., 2014).

Ikerlan honetan *SROI*ren kalkulua 5 fasek osatu dute, *ASPANOGI*ren jarduerak sortutako inpaktu soziala neurtuko dutenak.



4.1 irudia: ASPANOGIren jardueren eskema. Iturria: autoreak sortua ASPANOGIko datu iturrietatik abiatuta (2024)

4.3.3.2.1 fasea: analisiaren nondik norainokoa ezarri eta *stakeholderak* identifikatu

Ezinbestekoa da definitzea nork parte hartuko duen prozesuan eta nola, analisirako denbora-markoa zehaztu eta azterketarako garrantzitsuenak diren *stakeholderak* aukeratu. Aukeratu eta ez aukeraturakoak justifikatzea ere ezinbestekoa da.

Analisiaren nondik norainokoa ezartzeko, *ASPANOGI*ren jardueren eskema eza-gutzea beharrezkoa da. 4.1 Irudian azaldu ditugu *ASPANOGI*ren jarduerak hiru programetan sailkatuta:

Kasu honetan, gure *SROI* analisia, lehen programako (Arreta Integraleko Programa) Gizarte-arretako proiektuan zentratuta dago. Honen arrazoia, datu gehien, eskuragarrien eta neurgarrien dituen proiektua dela da. Gainontzeko proiektuetan hasi berriak dira datuak biltzen eta etorkizun batean *SROI* analisia proiektu horietara zabaltzea aurreikusten da. Hala, *ASPANOGI*ren jarduerak gizartean eragiten duten inpaktu soziala era xeheago eta zehatzago batean eskaintzeko moduan izango dira.

Azterketarako aukeraturako denbora-eremua 2023a izan da, azken datu itxiak urte horretakoak baitira.

Gizarte-arretako proiektuaren bidez, haur eta nerabe kaltetuari eta eragindako familiei arreta indibiduala eta pertsonalizatua eskaini nahi izan zaie, haien beharrak asetzeko eta bizitza ahalik eta gehien normalizatzeko. Gaixotasunak eragina du minbizia duen haurraren eta nerabearen eta haren familiaren familia-, hezkuntza-, lan- eta gizarte-eremuan, eta beharrezkoa da horiek kontuan hartzea esku hartzerakoan.

Gizarte-arretako proiektuaren helburu orokorra haurraren, nerabe onkologikoaren eta haren familiaren bizi-kalitatea hobetzea da.

Gizarte-arretako proiektuaren helburu zehatzak, aldiz, hauek dira:

- Gurasoen eskaerak *ASPANOGI*n eta gizartean dauden baliabideetara bideratzea, eta horiek kudeatzea eta izapidetzea.
- U.Donostia Ospitalera joaten diren familiei ostatu-baliabide bat ematea, zaintzailearen akidura fisiko eta emozionala murriztuz.
- Beste erkidego batera lekualdatutako familientzako ostatua izapidetzea eta familia lekualdatzen den guraso-elkarteekin koordinatzea.
- Gizarte-arazoak konpontzeko banakako esku-hartze sozialak egitea.
- Elkarteen eskumenekoak ez diren egoerak bideratzea.
- Baliabideak mobilizatzea eta familia etorkinei laguntzea. Ukrainatik datozen adingabe onkologikoak iristea aurreikusten da, baina ez dakigu noiz eta zenbat izango diren.
- Zonako beste eremu edo zerbitzu batzuekin koordinatzea kasu bateratuetako esku-hartzeetan.
- Elkartetan eta beste zerbitzu batzuetan interesa eta lankidetzatza pizteko egiten ari den lanari buruzko aldizkako informazioa.
- Haurraren, nerabe onkologikoaren eta haren familiarengan sortzen diren arazoak eta premiak konpontzen inplikatzeko diren erakundeak eta organismoak kontzientziatzea eta inplikatzeko saiakerak.

Gizarte-arreta proiektuan garatzen diren ekintzak hauek dira:

- Harrera eta zuzeneko arreta Donostia Unibertsitate Ospitalean.

- Harrera presentziala eta arreta soziala familia berrien eta familia bazkideen egoitza sozialean.
- Tratamenduan dauden adingabeen eta haien familien jarraipena.
- Etxez etxeko bisitak ospitalez kanpoko arreta behar duten eta egoitza sozialera joan ezin diren familiei.
- *ASPANOGI*ren baliabideei eta prestazioei buruzko informazioa eta orientazioa, lan-orientazioa (Cume), Etxez Etxeko Laguntza Pedagogikoko zerbitzuaren eskaera, mendekotasunari/desgaitasunari buruzko balorazioak.
- Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Onkohematologia Pediatrikoko unitateko osasun-langileekin (pediatrik, onkologia, erizaintza, etab.) harremanetan jartzea eta koordinatzea.
- Gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzea eta koordinatzea, kalteberatasun ekonomikoko egoerei edo mendekotasuna/desgaitasuna baloratzeko eskaerei erantzuteko.
- Egoera ekonomiko ahulean dauden familiei gizarte-zerbitzuetara laguntzea.
- Atzerriko familiei orientazio eta laguntza instituzionaleko baliabideetara laguntzea.
- Elkarre eta ospitaleetako gizarte-langileekin koordinatzea, lekualdatutako familiei ostatu emateko.
- Hildako familia adingabeei laguntzea: beilatokira laguntzea.
- *ASPANOGI*ko nerabe eta gazteen taldearen jarraipena. Arlo soziala eta harremanen arloa gainbegiratzea.
- Sentsibilizazio-hitzaldiak ikastetxeetan.

- Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko praktiketako ikaslearen prestakuntza eta gainbegiratzea.
- Espainiako Federazioaren Gizarte Laneko batzordeetan parte hartzea, Madrilen.
- UMEEKIN Euskal Federakundeko gizarte laneko batzordeetan parte hartzea.

ASPANOGIk Gizarte-arreta proiektuaren bitartez emandako eta finantzatutako baliabide ekonomikoak eta azpiegiturak hauek dira:

- Piratenea: Familiei Donostia Unibertsitate Ospitalearekin ondo komunikatutako espazio bat eman zaie, atsedean hartzeko eta indarberitzeko. Etxebizitza hori alokairu sozialeko erregimenean utzi ziguten, eta *ASPANOGIk* bere gain hartzen ditu alokairu-kostua eta mantentze-gastuak. Bi logela eta bi bainugela ditu erabilera pertsonalerako eta espazio komun bat, sukaldaria eta egongela.
- Janari-txartelak: Gurasoek uneoro egon behar dute seme-alaba zaintzen, eta horrek ozta-ozta uzten die ospitaleko gelatik irteten. Horregatik, pazienteak zaintzen dituen pertsona zaintzeko helburuarekin, laguntzailearentzako janari-txartelak finantzatzen dira EAEko erreferentziazko ospitaleetan (Donostiako Unibertsitate Ospitalea, Gurutzetako Ospitalea Bilbon) ospitalizazio-aldian. 2022an, afarietarako baliabidea zabaltzen saiatu dira, baina ezinezkoa izan da, kafetegiak ez baitu zerbitzu hori eskaintzen, itxita dagoelako.
- Zaintzailearentzako gela: Onkologiako adingabeak sartzen diren unitatearen barruan dagoen espazioa da, komun pertsonala du (seme-alabaren logelaren

ezin dute bainugela erabili), mahai bat non jateko aukera duten, mikrouhin-labea eta hozkailua. Entreenimendurako telebista bat dute. Hori guztia zaintzen duen pertsona zaintzeko helburuarekin.

- Aparkaleku bat ama-haurren sarreratik gertu (Donostia Ospitalea): familia bazkide berriei aparkaleku-txartelak eman zaizkie (*ASPANOGI*ren logotipoarekin), Donostia Ospitaleko Zuzendaritzak utzitako plazan. Elkarteko profesionalak arduratu dira horiek emateaz.
- Laguntza ekonomiko puntualak: Bizikidetzaren unitatearen eta adingabearen osasun-egoeraren balorazio sozio-ekonomikoa egin ondoren, familien oinarritzko gastuak ordaintzen laguntzeko laguntza ekonomikoak ematen dira.
- Aisialdia ospitalera hurbiltzea eta ospitaleratutako haur eta nerabeak kanpokoekin harremanetan jartzea, jolas eta dinosauro interaktiboen bidez. Armairu bat dugu (zaintzailearentzako gelan), Elkartearen jolas-materiala gordetzeko (ipuin plastifikatuak, jostailu elektrikoak).
- Telebistako vip txartela uztea: Enpresak kargatzen dituen bi txartel ditugu. Kaltetua unitatetik kanpo sartzen denean, txartel hau ematen zaio.
- Minbizia duten haur eta nerabeentzako laguntza teknikoen mailegua (gurpil-aulkiak, bainu-aulkia, zapiak), aldi baterako behar badute. Kimo kap zapiak emakume boluntario talde batek ematen ditu, kaltetuek beren adinera eta lehentasunetara egokitutako hainbat zapi izan ditzaten.

Analisiaren nondik norainokoa eta analisiaren denbora-markoa zehaztu ondoren, *stakeholderak* identifikatu dira (Retolaza et al., 2015).

Stakeholderak identifikatzeko, eragina izan dezaketen guztiak hartu ditugu kontutan, aldaketa edo outcome positiboa edo negatiboa izan. Gaur egun argi dago bazkideak ez direla *stakeholder* gisa legitimatuta dauden bakarrak.

Stakeholderen oinarri teorikoa erakundeen botere-banaketan eta osatzen duten taldeetako bakoitza, bai barne-ikuspegitik, bai kanpo-ikuspegitik sinesmenetik abiatzen da.

Stakeholderak, jarduerak eragiten dien taldeak edo banakoak dira: langileak, finantzatzaileak, bazkideak, bezeroak, egungo eta etorkizuneko gizartea, etab. Beraz, kontuan hartu behar dira interesak, eskariak eta kasu bakoitzean jokoan dauden itzaropenak eta sare horretan bakoitzak duen benetako boterea.

Stakeholderak identifikatzeko, irizpide hauen arabera gidatu gara (Accountability, 2009):

- Erakundeak haiekin duen edo izan dezakeen erantzukizuna.
- *Stakeholderek* erakundean duten eragin-maila.
- Erakundearekiko edo *stakeholderekiko* hurbiltasuna.
- Mendekotasun-maila erakundearen jarduerekin.
- Erregulazioak, tradizioak edo kulturak *stakeholderei* ematen dien adierazgarritasuna.
- Erakundearen politikak eta estrategiak gizarte-erantzukizun korporatiboan.

Stakeholderak definitu ondoren, lehenetsi egin behar dituzte, norekin hitz egin eta harremanak garatzea garrantzitsuagoa den. Lehenetasun horretarako, erakundeak zer irizpide erabili erabaki behar du: eragiteko gaitasuna, konpromisorako nahia, eragina erakundean... (Accountability, 2009)

Ildo horretan, *stakeholderak* honela sailkatzen dira:

- Lehen mailakoak: zuzeneko eskubideak eta legez ezarritakoak dituztenak. Horrela, talde honetan sartzen dira akziodunak, langileak, kontsumitzaileak, hornitzaileak, gobernu eta lehiakideak.
- Bigarren mailakoak: enpresaren baliabideen gaineko eskubideak okerrago daude edo irizpide hauetan oinarritzen dira: erkidegoarekiko leialtasuna edo betebeharrak (komunikabideak, gizarte zibila).

Ikerketako gure kasuan, lehen mailako *stakeholder*ak izan dira hautatuak. 4.8. Taulan ikusi daiteke *stakeholder* hautatuak eta baztertuak, bakoitzaren arrazoiekin:

4.3.3.2.2 fasea: inpaktuaren mapa prestatu

Inpaktuaren mapa prestatzeko fase honetan, aukeratutako *stakeholder* bakoitzeko, haserako inbertsioa (*inputak*) eta entitateari egindako ekarpena identifikatu eta kuantifikatuko da, lortutako emaitzak (*outputak*) zehaztuz. *Stakeholder* bakoitzak ematen duen balioa zehaztu ondoren, entitate bakoitzarentzat aldaketak (*outcomeak*) identifikatuko dira, erakundearen bidez egiten diren jardueren ondorio diren aldaketa sozialak hain zuzen. Identifikatu diren aldaketetako batzuk zailak dira neurtzen, ikerketa zehatzak beharko lirakeelako edo behar den informazioa ez delako eskura egongo.

4.9. Taulan, hautatutako lehen *stakeholder*ari (Eraginpenko familiak) dagozkion *input*, *output* eta *outcomeak* identifikatzen dira:

Hautatutakoak	Arrazoiak
Eraginpeko familiak	Onura gehien izango duen taldea izatea espero da
Eusko Jaurlaritza	Finantzaketa ematen du eta horregatik eragina du jardueran
Gipuzkoako Foru Aldundia	Finantzaketa ematen du eta horregatik eragina du jardueran
Haur minbizidunen Espainiako Federazioa	Finantzaketa ematen du eta horregatik eragina du jardueran
Gizarte langilea	Jarduerak egiteko denbora baliabide eta baliabide materialak jartzen ditu eta onurak jaso eta eragiten ditu.
Bazkide laguntzaileak	Finantzaketa ematen dute eta horregatik eragina dute jardueran
Enpresa laguntzaileak	Finantzaketa ematen dute eta horregatik eragina dute jardueran
Baztertutakoak	Arrazoiak
Asion	Finantzaketa ematen duten arren, hautatutako <i>stakeholderekin</i> alderatuta erlatiboki zenbateko txikia delako
Vila Vechia fundazioa	Finantzaketa ematen duten arren, hautatutako <i>stakeholderekin</i> alderatuta erlatiboki zenbateko txikia delako
Roland MacDonalden etxea	Finantzaketa ematen duten arren, hautatutako <i>stakeholderekin</i> alderatuta erlatiboki zenbateko txikia delako
Sucklis etxea	Finantzaketa ematen duten arren, hautatutako <i>stakeholderekin</i> alderatuta erlatiboki zenbateko txikia delako
Afanoc	Finantzaketa ematen duten arren, hautatutako <i>stakeholderekin</i> alderatuta erlatiboki zenbateko txikia delako

4.8 taula: *Stakeholder* hautatuak, baztertuak eta arrazoiak laburbiltzen dira taula honetan. Iturria: autoreak sortua.

Input	Output	Outcome
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Atsedean etxea	Tratamentu garaietan probintzian zehar bizi diren familientzat joan-etorriak sahiestea
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Janari txartelak	Zaintzailearentzat eguneroko janari beroa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Diruzkoak ez diren laguntzak	Adingabearen gaixotasunarekin lotutako gastuen kontura ordaintzea (joan-etorriak, farmazia, ehorzketa, dietak, etab.), inongo administraziok itzuli ez badizkio familiari
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	CUME (adingabeak zaintzeagatik prestazioa)	Gizarte Segurantzaren prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Deribazioak	Joan beharreko ospitalea dagoen hiriko ostatuak kudeatzea, familiei laguntza ematea lekualdatzean eta erreferentziatzko elkartarekin harremana kudeatzea helmugako hirian.
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Ardurapeko seme-alabagatik prestazioa	Gizarte Segurantzaren prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Osakidetzaren gastuen itzulketa	Autonomia erkidegotik kanpoko ospitaleetara bideratzeak eragindako gastuak itzultzeagatik familiei itzultitako dirua
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Aparkaleku plaza	Ospital atarian aparkaleku bat doan uztea
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Telebista txartelak	Ospitaleko logeletan telebista ikusteko txartela doan uztea
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Familiartekoentzako atsedean gela ospitalean	Ospitalean atsedean hartzeko gune bat doan uztea, bainugela, dutxa, hozkailua, mahaia eta aulkiak eta sofa batekin

4.9 taula: *Inputak, Outputak eta Outcomeak.* Iturria: autoreak sortua

4.3.3.2.3 fasea: emaitzak (*outputak*) adierazi ondoren aldaketei balioa eman

Identifikatu diren aldaketetarako (outcomeak), lortutako inpaktua azaltzen duten adierazleak ezarri behar dira, eta hauek lortutako aldaketa-unitateak kuantifikatutako dituzte, baita denboraren gaineko iraupena ere. Diru-estimazio espezifiko bat (finantza-proxy) aplikatu behar zaie identifikatutako adierazleei, lortutako aldaketen diru-balioa kuantifikatzeko aukera ematen duena.

Kuantifikazio edo balorazio-prozesu hori monetizazio gisa ezagutzen da, alegia, balio monetarioa ematea merkatu-baliorik ez duten gauzei. Gure egunerokoan erabiltzen ditugun prezio guztiak eroslearen eta saltzailearen baloreen hurbilketak dira ("proxieak"). Irabazi edota galdu egiten dute transakzioan. Lortzen dugun balioa desberdina izango da pertsonentzat egoera desberdin bakoitzean.

Izan ere, balio oro da, azkenean, subjektiboa. Merkatuak, hein handi batean, gauzen balioari buruz jendeak dituen pertzepzio subjektibo ezberdinen artean bitartekotza egiteko garatu dira. Batzuetan kasu horiek besteetan baino nabariagoak dira. Baina prezioak egonkorak direnean eta balio objektiboaren edo egiazkoaren itxura dutenean ere, hori ez da egia, balioa subjektiboa izan baitaiteke egoeraren arabera.

Balio sozialaren kasuan, zenbateko monetario batera iristea ia zentzu guztietan gauza bera da. Aldea da ondasunak ez direla merkatuan merkaturatzen, beraz, ez dago "prezioa ezagutzeko" prozesurik. Horrek ez du esan nahi, ordea, "ondasun" sozial horiek ez dutenik baliorik jendearentzat.

*SROI*n finantza-proxieak erabiliko ditugu *stakeholder* desberdinetarako merkaturatzen ez diren ondasunen gizarte-balioa kalkulatzeko, ekitatez (Retolaza eta San-Jose, 2021). Bi pertsona ondasun baten balioarekin ados egon ez daitekeen

bezala (eta orduan ez dute negoziarik egingo), *stakeholder* desberdinek pertzepzio desberdinak izango dituzte gauza desberdinetatik lortzen duten balioari buruz. Balio hori finantza-proxieak erabiliz kalkulatzean, eta balorazio horiek konbinatuta, proiektu batek sortutako gizarte-balio osoaren zenbatespen batera iritsiko gara.

Printzipioz, hori ez da balore-burtsan egiten diren balorazioen desberdina, horiek erosleen eta saltzaileen balorazio subjektiboen metaketari buruzko hausnarketa besterik ez baitira. *SROI*rekin, ordea, lortutako guztizko balorazioa edo inpaktua osatuagoa izango da ziurrenik. Izan ere, akzioen prezioak *stakeholder* talde oso mugatu baten balorazioak baino ez ditu islatzen (inbertitzaile instituzionalak eta txikizkariak), eta *SROI* analisi batek, berriz, behar bezala egiten bada, jarduera, proiektu edo erakunde bati dagozkion balio-mota desberdinak atzematen ditu, eragiten dieten horien guztien – hau da, *stakeholderen* – ikuspegitik ikusten diren bezala.

Batzuetan, monetizazioa nahiko prozesu zuzena izan daiteke, adibidez, kostuak aurreztu nahi direnean. Kasu horretan, Gobernuaren ikuspuntutik osasun hobekuntza baten balioa neurtu nahi izanez gero, mediku partikular baten kontsultategira joateko kostua erabiltzea erabaki dezakezu finantza-proxy bezala.

Hala ere, *SROI*k balioesten zailagoak diren eta ohiko ebaluazio ekonomikotik kanpo geratzen diren gauzei ere balioa eman diezaieke.

Horretarako, teknika batzuk daude eskuragarri:

Adierazitako lehentasunean eta balioespen kontingentearen teknikan, jendeari zuzenean galdetzen diogu nola baloratzen dituen gauzak, beste batzuei dagokienez edo zerbait edukitzeagatik edo saihesteagatik zenbat ordainduko luketen kontuan hartuta. Ikuspegi horrek jendeak objektu hipotetiko batengatik ordaintzeko edo

konpentsazio bat jasotzeko duen prestasuna ebaluatzen du. Adibidez, jendeari eska diezaiokezu zure hiriko hegazkinen zarataren murrizketa balioestea -horregatik ordaintzeko prest zaudela. Alderantziz, galdetu ahal diezu zer ordain eskatuko luketen kriminalitatearen gehikuntza onartzeagatik.

Lehenespen errebelatuko teknikek merkatuan dauden ondasun erlazionatuen prezioetatik ateratzen dituzten balioak kentzen dituzte. Lehentasunak ondorioztatzeko teknika arrunt bat jendeak dirua nola gastatzen duen ikustea da. Gobernu askok familien batez besteko gastuari buruzko datuak ekoizten dituzte, besteak beste, aisialdia, osasuna edo etxeko hobekuntzak. Nahiz eta zenbait arrazoiengatik akatsak egon, hala nola zerbitzu publikoen balioa baztertzen duelako, hori ere baliagarria izan daiteke.

Beste balorazio teknika batek -prezio hedonikoak- balio bat garatzen du kontuan hartzen ari den ondasuna edo zerbitzua osatzen duten alderdien merkatuko baloreetatik abiatuta. Metodo hori etxebizitzaren prezioari eragiten dioten ingurumen-zerbitzuak baloratzeko erabil daiteke. Adibidez, aire garbia (eta poluzio-kostua) baloratzen lagun diezaguke, etxebizitzaren prezioei aire garbia duten eremuetan ezarritako gehigarria zenbatetsiz (edo etxe berdinetan egindako deskontua poluzio eremuetan). Beste adibide bat izan liteke jendeak arrisku jakin batzuk onartzeagatik eskatzen dituen soldaten diferentziala aztertzea, haiek beren bizitzako alderdi desberdinak nola baloratzen dituzten kalkulatzeko.

Beste ikuspegi batek onartzen du jendea, normalean, prest dagoela distantzia jakin bat bidaiatzeko, edo denbora pixka bat galtzeko haiek balioa ematen dieten ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko. Eragozpen hori dirua izan daiteke ondasun eta zerbitzu horien onuren zenbatetsia lortzeko. Horri bidaiaren kostuaren/denboraren balioaren teknika deitzen zaio.

4.10. Taulak *SROI* analisi honetan erabilitako *proxyen* zutabeak ematen ditu.

Outcome gehientzat aurreko paragrafoetan aipatutako teknikak jarraitu dira.

Outcome	Neurtzeko adierazlea	Finantza-proxy
Tratamentu garaietan probintzian zehar bizi diren familientzat joan-etorriak sahiestea	Tratamendua jasotzeko joan-etorrietan saihestutako kilometro-kopurua eta kostua gau bakoitzeko hotelean	Gasoilaren prezioa 2022an. 3 izarreko hotelaren batzbesteko prezioa/gaueko Donostian
Zaintzailearentzat eguneroko janari beroa	Emandako menu kopurua eta menu bakoitzaren prezioa	Donostia Ospitaleko kantineko menuaren prezioa
Adingabearen gaixotasunarekin lotutako gastuen kontura ordaintzea (joan-etorriak, farmazia, ehorzketa, dietak, etab.), inongo administraziok itzuli ez badizkio familiari	Familiak aurreztutako gastu horien zenbatekoa	2022an zerbitzu horien prezioa
Gizarte Segurantzaren prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea	Artekaritza zerbitzuek prestazio hori kudeatzeagatik kobratzen duten prezioa	2022an Artekartitza zerbitzu horien prezioa Donostiako Artekartitza zentru batean
Joan beharreko ospitalea dagoen hiriko ostatuak kudeatzea, familiei laguntza ematea lekualdatzean eta erreferentziatzeko elkartearekin harremana kudeatzea helmugako hirian.	Bidai agentzia batek eta artekaritza zerbitzuek prestazio hori kudeatzeagatik kobratzen duen prezioa	2022an Donostiako Bidai agentzia batek eta Artekartitza zerbitzuek prestazio hori kudeatzeagatik kobratzen duen prezioa
Autonomia erkidegotik kanpoko ospitaleetara bideratzeak eragindako gastuak itzultzeagatik familiei itzultitako dirua	Tratamendua jasotzeko joan-etorrietan saihestutako kilometro-kopurua eta kostua gau bakoitzeko hotelean	2022an gasoilaren prezioa. Familiek gaua pasatako hoteletako prezioa
Ospital atarian aparkaleku bat doan uztea	Ospital atarian aparkatzeak daukan prezioa	2022ko Ospitaleko parking egun bateko prezioa
Ospitaleko logeletan telebista ikusteko txartela doan uztea	Ospitaleko logeletan telebista ikusteko txartelaren prezioa	2022ko Ospitaleko logelan telebista ikusteko txartelaren prezioa
Ospitalean atsedean hartzeko gune bat doan uztea, bainugela, dutxa, hozkailua, mahaia eta aulkiak eta sofa batekin	Hotelean gau bakoitzeko prezioa	3 izarreko hotelaren batzbesteko prezioa/gaueko Donostian

4.10 taula: *Outcome* bakoitza neurtzeko adierazlea eta finantza-proxya. Iturria: autoreak sortua.

4.3.3.2.4 fasea: aldaketa (*outcome*) bakoitzeko inpaktua neurtu

Inbertsioaren inpaktua kuantifikatu egin beharko litzateke lortutako emaitzen baliari dagokionez, eta ondoren, entitateak eragin ez dituen aldaketetarako (*outcomeak*) doitu (hurrengo atalean emaitzak eta emaitzen azterketa).

4.3.3.2.5 fasea: *SROI* kalkulatu

Fase honetan, onurak gehitzen dira, negatiboak kentzen dira eta lortutako emaitza egindako inbertsioarekin alderatzen da. Azken urratsa da *SROI*ren emaitzak lehen identifikatutako *stakeholder*rei jakinaraztea, lortutako emaitzak alderatzeko eta egiaztatzeko behar den informazioa eskainiz (hurrengo atalean emaitzak eta emaitzen azterketa).

4.3.3.3. Behaketa

Behaketa ikerketa kualitatiboko tresna bat da, gizarte-egoeretan era sakon batean barneratzea eta zeregin aktiboa, xehetasunei, gertakariei eta elkarreraginei etengabeko arreta ematea eta ikertzailearen etengabeko hausnarketa eskatzen duena (Hernández Sampieri et al., 2006). Ikerketa-lan honetan, behaketa datuak biltzeko tresna baliozkotzat jotzen da, behaketaren funtsezko helburuak bat baitatoz *IAGE* batean inpaktu soziala neurtzeko prozesuan hura garatzen duten pertsonen bitartez ulertzearen inguruko ikerketa honen helburuekin.

Azterlanean egindako behaketa-formatu espezifikoak behaketa parte-hartzailearena da. Parte hartzen duen behaketaren ezaugarria ikerlariak ikasketa-egoerari buruz duen rol aktiboa da (Adler eta Adler, 1994). Behatzera mugatu beharrean, ikertzaileak lagundu, partekatu eta parte hartzen du ikertua den erakundearen

errutinetan.

2022ko azaroan hasi zen *ASPANOGI*n behaketa parte-hartzailea egiten, eta lehen murgiltze-etaparen hasiera markatu zuen. Urte betez, ikertzaileak presentzialki parte hartu zuen *ASPANOGI*ren lan-dinamikan, eta batez beste astean bitan joan zen bere instalazioetara, lanaldi erdiko hainbat ordutegitan. Egunak eta ordutegiak malgutasunez definitu ziren ikerketak aurrera egin ahala, eta kideen errutina bera eta erakundearen jardueraren bilakaera kontuan hartuta. Horrela, aukera zehatzak aprobeztatu ziren ekitaldi berezietan parte hartzeko, hala nola zuzendaritza-batzordeetan edo hirugarrenen bisitetan, eta ohiko jardueretan ere parte hartu zen, hala nola egunerokotasuneko lanetan.

Lehen etapa horretan, erakundeak berariazko lan-mahai bat prestatu zuen iker-tzailearentzat, bertako lan-taldeko kideek betetako mahai bateratuen gunean. Horri dagokionez, zehaztu behar da *ASPANOGI*ren bulegoak oso dimentsio mugatuak dituela, hain zuzen ere, horma eta aterik gabeko espazio gardena dela, eta, beraz, bulegoko puntu guztietatik entzun daitezkeela erakundeko beste lankide batzuen elkarrizketak ere.

Parte-hartzaile izate horren eragozpena ikertzaileak aztergaiaren eragitean (Yin, 2009) sar dezakeen subjektibotasuna bada ere, ikertzailea azterlanaren testuinguruaren gako kulturalekin ohitzeko eta bere kideekin konfiantzazko eta lankidetzazko loturak ezartzea lortzeko modu egokia ere badela uste da. Izan ere, bi faktore horiek funtsezkoak dira ikerketan parte hartzen dutenen arrazoiak eta portaerak ulertzeko eta, errealitatea kideek ematen dioten zentzutik definitzeko (Kawulich, 2005). Kasu honetan, ikerlariaren eta azterlaneko parte-hartzaileen arteko harremanaren bilakaerak erraztu egin zuen informazio pertsonala eskuratzea eta bildutako datuak sortzen ziren testuinguru soziala eta inguruabar indibidualak ulertzea. Era berean, ikertzailea egoera horretaz jabetu zen eta zorrotz dokumentatu du,

gertatutako eta hautemandako guztiari buruzko ohar zehatzak eginez, eta behaketaren kalitatea bermatzen saiatu da (Kawulich, 2005; Peñaloza eta Cayla, 2006). Era berean, behaketa parte-hartzailearen benetako baliozkotasun zientifikoa beste ikerketa-tresna batzuekin konbinatuta lortzen da, ikertzailearen subjektibotasuna minimizatu eta kontrasteak eta informazio-iturri gehigarriak eman ahal izateko (Adler eta Adler, 1994; Hernández Sampieri et al., 2006; Kawulich, 2005). Hori dela eta, ikerketa-lan honetan, behaketa parte-hartzailea elkarrizketa erdiegituratuekin eta ebidentzia dokumentalekin konbinatu da.

Behaketa guztiaren oinarri dokumentala ikertzaileak hartutako landa-oharrak dira. Metodologia kualitatiboetan behaketa aplikatzeko gomendioei jarraiki (Lofland et al., 2005; Peñaloza eta Cayla, 2006), landa-ohar horietatik abiatuta eta elkarrizketetatik edo dokumentuetatik lortutako beste datu batzuekin alderatuta, euskarri batzuk sortu ziren, lortutako datuen interpretazioa eta kontrastea erraztu zutenak.

4.3.4. urratsa: Ebidentziaren azterketa

Datuak bildu ondoren, aztertzeke unea da, eta planteatutako helburuekin erlacionatu behar dira. Yinén (1989) iritziz, fase honen helburu nagusia informazioa aztertzea, kategorizatzea eta tabulatzea da, eta ikerketaren proposamenekin lotzea (Rialp, 1998 eta Hernández Sampieri et al., 2006).

Datuen analisiaren ezaugarri nagusia da beharrezkoa dela datuei azterketaren helburuetara egokitzen den egitura ematea (Corbetta, 2003).

Datuen analisisa egin ahal izateko, proiektu honek urrats hauek eman ditu (Hernández Sampieri et al., 2006):

1. Datuak biltzea.

2. Datuak berrikustea.
3. Datuak antolatzea.
4. Datuen koherentzia berrikustea.
5. Kategoriak definitzea.
6. Datuak kodetzea.
7. Proposamenak kontrastatzea.

Lehenengo jarduera ebidentzia dokumentalek, elkarrizketak, zuzeneko behaketak eta tresna fisiko, teknologiko eta kulturek bildutako material guztia berrikustea da, jatorrizko formatuan, informazioa osorik dagoela eta aztertu ahal izateko beharrezko kalitatea duela ziurtatzeko.

Bigarren jarduera elkarrizketetako informazio guztia transkribatzea da, eta, hirugarrena, gainerako tekniken bidez jasotako datuekin batera antolatzea, ondoren aztertzeko (Coleman eta Unrau, 2005). Ondoren, laugarrenik, datuen koherentzia orokorra berriro aztertzea komeni da.

Bosgarren jarduera ikerketaren helburuetara ondoen egokitzen diren kategoriak zehaztea da (Lee eta Fielding, 1996 eta García-Álvarez eta López-Sintas, 2002). Ondoren, informazioa kodetzen da, dagokion kategoriari esleituz (García-Álvarez eta López-Sintas, 2002 eta Hernández Sampieri et al., 2006). Horrela, ikertzaileak datuak berrikusten dituen heinean, datuak lehen definitutako kategorietan sailkatzea lortzen da, ondoren, azterketa honetako proposamenak kontrastatzen lagunduko duten kategoriak interpretatu ahal izateko.

Informazioa kodetu ondoren, azken urratsa emaitzak interpretatzea eta definitutako proposamenak kontrastatzea da. Lan hori egiteko, ikerketa honetan datuen

matrizeetara jotzen da kategorien eta proposamenen arteko erlazioak ezartzeko (Miles eta Huberman, 1984, García-Álvarez eta López-Sintas, 2002 eta Hernández Sampieri et al., 2006).

Hala ere, ikerketa baten izaera zientifikoa bermatzen duten irizpideak edozein ikerketetan bete behar dira, metodo kualitatiboak edo kuantitatiboak erabiltzen diren alde batera utzita. Informazioa aztertu egin behar da, emaitzen baliozkotasunaren objektibotasun-irizpideak (konstruktuaerenak, barnekoak eta kanpokoak) eta azterketaren fidagarritasuna bermatzeko, datuen triangulazioa ez baita nahikoa (Flick, 2004).

- Konstruktuaeren baliozkotasuna (egiaztagarritasuna):

Konstruktuaeren baliozkotasunak aukera ematen du frogatzeko ea aukeratu diren neurriak aztertutako egoera islatzeko baliagarriak diren (Yin, 1994). Hori egin ahal izateko, Yinek (1994) proposatutako ekintza hauek gauzatzen dira proiektu honetan:

1. Ebidentzia enpirikoko hainbat iturri erabiltzea (triangulazioa), datuen bilketari kalitatea emateko.

Lehenago, ebidentzia dokumentala, elkarrizketa eta zuzeneko behaketa proposatu dira ikerketa honetako datuak lortzeko teknika nagusi gisa. Ondorioz, errealitatearen irudi zehatzagoa lortzen da (Yin, 1993, 1998; McCutcheon eta Meredith, 1993; Rialp, 1998; Bonache, 1999; Johnston et al., 2001; Fong, 2002, 2005; eta Arias, 2003).

2. Kanpoko funtsezko eragileek txostena ebaluatzea, aztertutako egoera deskribatzeko aukeratutako neurrien baliozkotasuna egiaztatzea. Elkarrizketatuek, kasu honetan jabe batek edo zuzendari/kudeatzaile batek, *IAGE*ko

langile batek eta beste bi stakeholderek, amaierako txostena ebaluatzeak zorrotasuna eta objektibotasuna ematen dizkio azterketari, eta ikertzailearen eta elkarrizketatuen desbideratzeak gertatzeko arriskua murrizten du.

- Barne baliozkotasuna (sinesgarritasuna):

Barne-baliozkotasunak azterlanean aztertutako egoera islatzen duen maila adierazten du (Bonache, 1999). Portaera erreala aztertutako aldagaien esperotakoarekin alderatuz gero, bien artean dagoen kausa-efektu erlazioa jakin daiteke (Eisenhardt, 1989 eta Yin, 1993).

Bildutako datuak aztertzeke unean, azalpen logiko bat eraikitzeke estrategiari jarrai dakioke (Yin, 1982). Teknika horren bidez, azalpen teoriko bat sortzen da *IAGE*ek sortzen duten inpaktu soziala neurtzeko prozesua nola gauzatzen duten azaltzeko, kasu bakoitzean lortutako datuetatik abiatuta.

- Kanpo baliozkotasuna (gardentasuna):

Emaitzen kanpo-baliozkotasunak edo aplikagarritasunak ez du esan nahi emaitzak biztanleria zabalago bati orokortzea; aitzitik, emaitzak beste testuinguru batzuetara iritsi diren ondorioak hedatzea eta aplikatzea du helburu (Yin, 1994). Kasu bakoitzean lortutako emaitzak erreferentzia gisa erabiltzen dira aztertutako gainerako kasuen emaitzak alderatzeko, hau da, bi kasu edo gehiagok teoria berari eusten badiote, esperientzia errepika daitekeela onartzen da (Yin, 1994). Zeregin hori errazteko, ikerketa honetan erreplikazio logikoa errazten duen biztanleriaren lagina hautatzen da (Eisenhardt, 1989) eta fenomeno bat azaltzen duten kausak identifikatzea ahalbidetzen duena (Bonache, 1999). Kasu honetan, identifikatutako kasuak lagin teorikoaren edo kontzeptualaren irizpideei jarraitzen diete, hau da, Gipuzkoako haur minbizidunen familien elkarte bat hartu da aztergai, honen jarduerak gizartean eragiten duten inpaktu soziala neurtzeko eta beste an-

tzeko kasuren batean erreferentzia gisa balio dezan honen inguruko teoria garatzen laguntzeko (Hernández Sampieri et al., 2006).

- Fidagarritasuna (mendekotasuna):

Fidagarritasunaren helburua da frogatzea datu-bilketa eta emaitzen analisia fenomeno bera ulertu nahi duten beste ikertzaile batzuek erreplika ditzaketela emaitza eta ondorio beretara iritsiz (Yin, 1994 eta Franklin eta Ballau, 2005). Helburu hori lortzeko, Yinek (1998) proposatutako ekintza hauek egiten dira ikerketa honetan:

1. Kasuari buruzko protokolo formal bat ezartzea. Protokolo horretan, protokolo hori egiteko ematen diren urrats guztiak zehaztu dira. Datuak biltzeko protokoloak honako atal hauek jasotzen ditu (Yin, 1994): kasuen azterketaren asmo orokorra, landa-prozedura, azterlanaren gaiak eta kasuaren txostenaren gida.
2. Lortutako ebidentzia enpirikoak biltzen dituen datu-base bat egitea, hala nola elkarrizketetako oharra, dokumentuak eta transkripzioak (Flick, 2004). Kasuaren amaierako txostena egiteko behar diren dokumentuak jasotzen ditu datu-baseak. Horrela, datu berberekin lan egin daiteke geroko ikerketa batean edo beste ikertzaile batek horiek eskuratzeko aukera izan dezake eta objektibotasunaren irizpidea ebaluatu.

Laburbilduz, ikerketa honetan lau alderdi nagusi hartzen dira kontuan ikerketa-azterketaren zorrozatasuna eta kalitatea zehazteko: konstruktuaaren baliozkotasuna, barne-baliozkotasuna, kanpo-baliozkotasuna eta fidagarritasuna.

4.3.5. urratsa: Azterketaren emaitzak eta ondorioak idaztea

Azken urratsa aztertutako datuen eta ikerketaren hasieran ezarritako helburuen arteko erlazioari dagokio, hau da, emaitzak interpretatzen dira eta ondorio nagusiak lortzen dira (Arias, 2003).

Egungo ikerketaren azken txostenean jasotzen dira helburuak, esparru teorikoa kontrastatu beharreko proposamenekin, azterketaren diseinua, datuak biltzeko eta aztertzeko prozedurak, emaitza nagusiak eta azterketaren ondorioak (Yin, 1994).

Laburbilduz, aldez aurretik azaldutako urratsak *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala neurtu ahal izateko jarraitzen diren urratsak dira.

4.4 Kapituluaren laburpena

*IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialaren neurketa aztertzeko aukeratu den ikerketa-metodoa kasuen azterketa da. Erabaki hori hartzeko arrazoi nagusiak dira, lehenik eta behin, ikerketa honen helburu nagusia gutxi ikertutako eta gutxi definitutako esparru teoriko bat duen gai bat azterzea; bigarrenik, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialaren neurketaren urratsak prozesu osoa azterzea eskatzen du, *stakeholder* desberdinek parte hartzen baitute; eta, hirugarrenik, kasuen azterketa gero eta onartuago dago *IAGE*en esparruko ikerketa-tresna gisa, lehen eskuko informazioa eskuratzeko aukera ematen baitu.

*IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialaren neurketa aztertzeko, kasuen azterketaren bidez, Eisenhardt-ek (1989) eta Yin-ek (1989) proposatutako urratsak jarraitzen dira. Lehenik eta behin, azterlanaren alderdi nagusiak azaltzen dira (Miles eta Huberman, 1994), *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko literaturaren berrikuspena garatzen da (Yin, 1989).

Bigarrenik, azterketa-unitatea eta aztertu nahi den kasua erabaki dira. Ikerketa honetarako unitate garrantzitsua *IAGE*ak dira eta *IAGE* hori geografikoki Gipuzkoara mugatzen da. Aztertu beharreko kasuen hautaketa Yinen sailkapen bikoitzean oinarritzen da (1989 eta 1994), eta azterlan hau azterlan bakarra (kasu bat) eta izaera holistikoa (analisi-unitate sinplea) dela ondorioztatzen da. Kasu horren egitura teorikoa edo kontzeptuala da, teoria garatzen laguntzea nahi baita (Hernández Sampieri et al., 2006).

Hirugarrenik, datuak biltzeko protokolo bat sortu da, atal hauekin, informazioa biltzea errazteko eta lortutako emaitzei fidagarritasun handiagoa emateko: kasuen azterketaren asmo orokorra, landa-prozedura, azterlanaren gaiak eta kasuaren txostenaren gida (Yin, 1994 eta Villarreal, 2006).

Laugarrenik, datuak biltzen dira elkarrizketaren, ebidentzia dokumentalaren eta zuzeneko behaketaren bidez. Garrantzitsua da azpimarratzea elkarrizketak jabe edo zuzendari/kudeatzaile bati, elkarteko langile bati, eta bi *stakeholderri* egin zaizkiela.

Hurrengo urratsa teknika horien bidez lortutako informazio guztia aztertzea, kategorizatzea eta tabulatzea da (Yin, 1989). Prozedura horretan urrats hauek egin behar dira (Hernández Sampieri et al., 2006):

1. Datuak biltzea.
2. Datuak berrikustea.
3. Datuak antolatzea.
4. Datuen koherentzia berrikustea.
5. Kategoriak definitzea.
6. Datuak kodetzea.

7. Proposamenak kontrastatzea.

Bildutako informazioa ikerketa-azterketaren zorrotasuna eta kalitatea bermatze aldera aztertzen da: konstruktuaaren baliozkotasuna, barne-baliozkotasuna, kanpo-baliozkotasuna eta fidagarritasuna.

Azkenik, azken txostena idatziko da, eta bertan jasoko dira helburuak, esparru teorikoa kontrastatu beharreko proposamenekin, azterketaren diseinua, datuak biltzeko eta aztertzeko prozedurak, emaitza nagusiak eta azterketaren ondorioak (Yin, 1994).

Emaitzak

5.1 Sarrera

Kapitulu honetan, aurreko kapituluan sakondutako metodologia jarraituz, ikerketa honetan metodologia hori erabiltzetik ateratako emaitzak azaltzen dira.

Lehenik eta behin, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko prozesua oso zabala denez eta inplikaturako eragile bakoitzaren ikuspegia lortzea ezinbestekoa denez azterlan honetan erabilitako teknika kualitatiboen (elkarrizketen) emaitzak azaltzen dira.

Ondoren, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzeko prozesuan garrantzia izan duen hautatutako teknika kuantitatiboa (*SROI*) aplikatuzetik ondorioztatzen diren emaitzak azaltzen dira.

5.2 Teknika kualitatiboa. Elkarrizketak

Aurreko kapituluetan aipatu dugunaren arabera, ikerketa-lan honen helburua *IA-GE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutza berria sortzea da. Horretarako, lan honetan ikerketa metodologia mistoa aukeratu da, ikuspe-

gi horrek aukera ematen baitu *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu soziala ulertzeko prozesuaren xehetasunak eta esperientziak jasotzeko, ingurunea testuinguruan kokatzeko eta datuen interpretazio-sakontasun eta -aberastasun handiagoa lortzeko. Eta era berean, ikerketa mota honek baimena ematen digu datuak jasotzeko garaian teknika kualitatibo eta kuantitatiboak erabiltzeko. Hala, ikerketa metodologia misto hau, testuinguruaren ezagutzan eta *stakeholder*ekin izandako elkarrekintzetan oinarritzen da, eta jasotzen dituzten inpaktuen kuantifikazio ekonomikoa ere eskaintzen du.

Alde kualitatiboari dagokionez, hasteko, *Input*, *Output* eta *Outcome* ezberdinen arteko erlazioak ulertu eta barneratu nahi dira. Gure kasuan, jakin nahi dugu *ASPANOGI*k nola sustatzen dituen eraginpeko familien, langileen, administrazio publikoen eta beste *stakeholder* batzuen bizimoduan aldaketa batzuk, eta, horrela, bere eginkizuna betetzen laguntzen du, ikuspegi sozial eta ekonomikotik.

Hori horrela egiteak argitu eta lagundu egiten du erakundeak mobilizatutako sarrerara edo baliabideen, hedatutako jardueren, horiei esker, horiek gauzatzean lortutako produktuen eta, azkenik, emaitza horietatik eratorritako *Outcome* edo inpaktuen artean gertatzen den erlazioan. Perspektiba horretatik abiatuta, *SROI* tresnak aukera ematen digu jakiteko zer egin den aldaketa horiek sustatzeko eta zer gertatuko litzatekeen *ASPANOGI* existituko ez balitz.

Inpaktu horiek lortzeko, beharrezkoa da hainbat eragileren ekarpenetan oinarritzea: eraginpeko familiak, langileak, administrazio publikoak... Inpaktu-kate honen identifikazioak esku-hartzearen ondoriozko inpaktu globala monetizatzeke aukera ematen du. Horretarako, *SROI* tresna aplikatuko da, hurrengo ataletan deskribatuko den bezala.

Haserako fase batean, elkarrizketak egin zaizkie jabe edo zuzendari/kudeatzaile bati, elkarteko langile bati eta bi *stakeholder*ri elkarrizketa erdi egituratu baten

gidoipean (1.eranskina). Arrazoi nagusia da inpaktu sozialaren neurketa prozesu oso zabala dela, eta pertsona askok parte hartu behar dutela bere kalkulatzeko garaian; horregatik, inplikaturako eragile bakoitzaren ikuspegia lortu behar da, prozesu osoaren ikuspegi orokorra lortzeko.

A *ASPANOGI*ko zuzendaritza taldean dago 2021tik. Zehazki, bertako diruzaina da. *ASPANOGI* 2017. urtetik ezagutzen du, izan ere urte hartan semeak bost urte zituela linfoma bat aurkitu zioten eta sei hilabeteko tratamendua izan zuen.

N *ASPANOGI*ko langilea da, zehazki, bertako gizarte langilea. Gizarte-lana gradua ikasi zuen Gasteizen eta bertan egin zituen praktikak *ASPANAFOA*n, Arabako haur minbizidunen familien elkartean. 2001. urtean hasi zen boluntario bezala *ASPANOGI*n, hasieran, familia gutxi batzuk zeudelarik bertan. Gerora kontratatu zuten eta bertan jarraitzen du lanean berak dioenez ospitalean eta minbizia duten haurrekin oso gustura eta eroso sentitzen baita.

L *ASPANOGI*ko boluntario bat da eta baita momentu honetan UMEEKINeko (EAEko haur minbizidunen elkartea) presidentea ere. *ASPANOGI* 2017. urtean ezagutu zuen, bere semeak hiru urte zituela leuzemia diagnostikatu ziotelako. Bi urtetako tratamendua izan zuen.

E *ASPANOGI*ko boluntario bat da eta *ASPANOGI* 2011. urtetik ezagutzen du. Garai hartan, bere semeak sei urte zituela lepoan bulto bat atera zitzaion eta sei hilabetez egon zen tratamenduan.

Denek aipatzen dutenez, *ASPANOGI*rekin izan zuten lehen harremana Nren birtatez izan zen. Ak aipatzen du ospitaleko lehen ospitaleratzean ate joka etorri zela gelara N, *ASPANOGI*ri buruzko lehen azalpenak ematera, informazioa ematera eta behar zuen horretan laguntza eskaintzera. Aren arabera, momentu oso gogorrak pasatzen ari ziren, semeari proba asko egin behar zizkiotelako eta diagnostiko

txar hori barneratzen ari zirelako eta galduta zeuden momentu horretan azaldu omen zitzaien N. Aren kezka nagusia zen zer egin behar ote zuten senar-emazteek beraien lanarekin, izan ere ikusten baitzuten luzerako izango zutela ospitaleko egonaldia. Eta N etorri zenean, argi pixka bat ikusi zuten, izan ere Nk azaldu zien bazutela laguntza bat gobernuaren aldetik, senar edo emazteak baliatu zezakeena. Nk azaldu zien bietako batek gaixorik dauden haurren inguruan dagoen baimen berezi bat hartu zezakeela. Horrela, anabasa guztiaren barruan argi txiki bat ikustea lortu zuten.

Lk kontatzen du ostiral iluntze batean ospitaleratu zutela semea, eta larunbatean bertan, eguerdian, *ASPANOGI*ko N azaldu zitzaiera. Azaldu ziela *ASPANOGI* zela elkarte bat minbizi kasu asko ikusten zituena eta beraien laguntza behar bazuten lasai jotzeko ospitaleko 4. solairura, *ASPANOGI*k bulegoa bertan baitauka. Astelehen goizean joan omen zen L bulegora eta bertan omen zeuden N eta Marijo *ASPANOGI*ko psikologoa. Hasera hasieratik sentitu omen zuen Lk beraien babesa. Hasieran pentsatzen omen zuen berak eta bere familiak bakarrik aurre egin ahal izango ziotela semearen gaixotasunari, baina denbora pasa ahala konturatu zela hori ezinezkoa zela (izan ere, beste ume jaioberri bat ere bazuten etxean). Pixkanaka, N eta Marijo Lren familiaren maitasuna lortzen joan ziren eta azkenean bihurtu ziren ezinbesteko pertsonak. Aipatzen du Marijo beretzat ama bezalako pertsona bat izan zela. Izan ere, ama ere galdu berria zuen eta behar zuen babesa berarekin lortu zuen. Bihotzez eskertuta azaltzen da L lehen momentutik *ASPANOGI* azaldu izana.

Antzeko esperientzia kontatzen du Ek. Diagnostikoa jasotzen duzun unea non zauden ere ez dakizun momentu batzuk direla eta momentu zail horietan azaldu omen zen beraien ospitaleko gelara N. Diagnostikoa eman eta egun gutxira. Elkar-
tea zer zen azaldu omen zien eta berarekin hasieratik harremana oso erreza izan omen zen. Berak dionez, dena ilun zegoenean azaldu zen N eta hala ikusi omen

zuten ate txiki bat, ez zaudela bakarrik adierazten dizun seinale bat. Nk harrera oso goxoa egin omen zien eta berehala sentitu omen zuen etxeke bat bezala. Denean sentitu omen zuen bere laguntza, bai gai administratiboetan eta baita zentzu psikologiko batean ere. Nk lagundu omen zion baita ere lan kontuan zegozkien laguntza bereziak kudeatzen. Azaldu omen zion bazegoela gaixorik zeuden haurrak zaintzeagatik laguntza batzuk eta ehuneko ehun kobratzen jarraituko zuela. Nri eskerrak erraztu omen zitzaaien bidea zentzu horretan.

Nk kontatzen digu *ASPANOGI*ko lehen atea irekitzen duena bera izaten dela. Diagnostikoa jasotzen duten familien logelara sartzen lehena bera izaten dela eta azaltzen omen die *ASPANOGI* gurasoez osatutako elkarte bat dela, elkartearen zeregina zein den, prozesu guztian zehar behar duten heinean laguntzeko daudela eta bizitzaren berrantolaketa zail horretan esku bat botatzeko prest daudela. Ze eskaintza dauden azaltzen du, ze baliabide, bai barrukoak (psikologikoak eta bestelakoak) eta kanpokoak (kudeatu beharreko lan administratiboak). Marijo eta bere artean kudeatzen omen dituzte gai horiek guztiak. Egoera horietako atea berak irekitzen omen du eta argi utzi nahi du familiak nahi eta behar duen heinean laguntzeko prest dagoen elkarte bat dela. Dio familiekin harremana oso oso gertukoa izaten dela normalean, ospitalean emozio guztiak askatzen baitira. Ospitale barruan emozio guztiak magnifikatzen dira eta emozioak, beldurrak, eta kalean aipatzen ez diren gauza horiek errazago ateratzen dira ospitalean. Familiekin harremana, Nren iritziz oso zuzena da, oso gertukoa, bai gizarte zerbitzu arloan eta baita kanpokoetan ere. Bera konturatzen da familiekin konfiantza hartzen doazen heinean eskertzen dutela *ASPANOGI*ren laguntza eta gertutasuna.

Bestalde, elkarrizketatu guztiak ados daude *ASPANOGI*ren barruan izan duten lehen kontaktua Nrekin izan zela eta gainera *ASPANOGI*n dauden gainontzeko langile eta teknikoekin baino harreman handiagoa izan dutela Nrekin.

Adibidez, Aren iritziz lehen egunetik N ondoan egon zenez eta gainera harekin harremana oso erraza izan zenez, gerora ere berarekin mantendu zuten harremanik estuena. Egunero egunero, N eta Marijo psikologoa etortzen omen ziren gelara, egunero etortzen ziren bisitan. Beraz, Nrekin harreman gehien eta ondoren Marijorekin, ospitalean elkartzan zirelako. Gerora, Unai komunikazio arduraduna eta Maria administrazio langilearekin gehixeago harremantzeko aukera izan omen du baina batez ere 2021. urtean zuzendaritza batzordean dagoenetik.

Lk aipatzen du Nrekin eta Marijo psikologoarekin harremandu zela gehien eta berarentzat oso garrantzitsuak izan zirela bi pertsona horiek, baina UMEEKI-Neko presidentea izateak ere baimendu diola beste bi langileekin ere harremana izatera. Unairekin komunikazio arloko gaietan izaten du harremana eta Mariarekin administrazio gaietan. Onartzen du *ASPANOGI*k izugarritzko eboluzioa izan duela azken urteetan, hasieran oso txikia zela eta urte gutxi batzuetan sekulakoa egin dela eta beste elkarte batzuekin bilerak egiten dituztenean, gainontzeko guztiak etortzen omen dira esatera *ASPANOGI* erreferente bat dela haientzat. Horrek erantzunkizun bat dakarrela dio. Bere iritziz, umeen gaia eta minbizia elkarturik oso gogorra da eta haurren minbiziaren gaian *ASPANOGI* erreferente izatea oso garrantzitsua da. Hor ikusten da gizartean *ASPANOGI*k egiten duen inpaktua. Lren iritziz hau horrela da urte askotan zehar atzetik egin izan den lanarengatik. Berak dioenez, Gipuzkoan badira beste hainbat elkarte, baina ez dute *ASPANOGI*ren inpaktua lortzen. Dio *ASPANOGI*k bere jardurekin bereziki ukitzen dituela bihotz guztiak eta oraindik lan handia dagoenez horretan jarraituko dutela.

Ek ere Nrekin izan du harreman handiena. Hasiera hasieratik azaldu zen laguntzeko prest eta berarengana jo zuen laguntza behar izan zuen guztietan. Maria ez zuen ezagutzen. Dio duela urte gutxi *ASPANOGI*ri loteria tokatu zitzaionean dezimoen sariak banatzera Maria Zegamara joan zen batean ezagutu zuela. Eta

Unairekin ere orain arte ez du harremanik izan. Zalantzarik gabe, bere iritziz *ASPANOGI*ren barruan harreman handiena Nrekin izan zuen eta oso harreman ona, oso gertukoa, oso estua. Edozein gauza behar zuenean Nrengana jotzen zuen, eta haren beharra sentitzen zuela dio.

Nk kontatzen digu bera familiarekin kontaktuan jartzen denez, beti ikasketa prozesu batean dagoela sentitzen duela. Araudiak, akordioak eta hitzarmenak eguneratuta izan behar ditu gero familiei gauzak zuzentasunez eskaini ahal izateko. Normalean, denbora gehienbat Marijo psikologoarekin partekatzen du. Bien arteko elkarlana handia da, izan ere, bakoitzak daukan informazioa interesgarria izan daiteke bestearentzat, bakoitzak bere arlotik jorratu dezan gaia. Maria eta Unairekin partekatzen ez duten informazioa dago hor.

Mariarekin diru-laguntzen gaia elkar-banatzen du batez ere. Izan ere, Nk du harremana familiarekin eta ondoren Mariak kudeatuko baitu unean uneko laguntza. Unairekin aldiz, komunikazioko gaiak lantzen ditu, baita sentsibilizazio gaiak ere. Izan ere, N ikastetxeetara joaten da elkarrizketak eta hitzaldiak egitera eta Unai arlo horretako komunikazioaz arduratzen da.

Aipatzen duenez, lauron arteko komunikazioa ere beharrezkoa da eta tarteka egiten dituzte bilerak, jarduerak eta hurrengo ekitaldiak partekatzeko eta antolatzeke. Elkar-lana ezinbestekoa dela dio, familiak direlako artatu behar direnak eta sentsibilitatea modu oso zorrotzean landu behar delako.

Elkarrizketetako beste atal garrantzitsu bat elkarrizketatu bakoitzak erabilitako zerbitzuak aipatzea da. Ak kasu honetan argi adierazten du berak "denetik" erabili zuela. *ASPANOGI*k duen aparkalekua maiz erabili zuela dio prozesuan zeuden bitartean. Bazkari txartel mordoa ere jaso omen zituzten eta baita erabili ere. Telebistako bonuak ere behin baino gehiagotan eman zizkion Nk eta noski, Nren eta Marijoren zerbitzuak ere, egunero ospitalean topatu baizitzakeen. N batez ere

paper kontu guztiak egiteko eta Marijo gai psikologikoetarako.

Ak dioenez Piratenea deskantsu etxea ez zuten behar izan, izan ere, ospitaletik bost minutura bizi baitira.

Gogoratzen du baita ere, egunen batean boluntario bat etorri zela semearekin egotera, harekin jolastera. Alde batetik semeari egiten zion on, harremantzen zen pertsona pixka bat aldatzen zelako eta bestetik, Ari egiten zion on, denbora tarte bat har zezakeelako ospitaletik irten eta beste zerbait egiteko.

Lk ere antzeko erantzuna ematen du. Aparkalekua maiz, bazkari txartelak zer esanik ez eta bere iritziz, psikologia zerbitzuak ere bai, bai prozesuan zehar eta baita bukatuta ere. Izan ere, badu sentrazioa dena amaitu zenean berak porrot egin zuela eta prozesua bukatu ostean ere maiz joaten jarraitu omen zuen Marijo psikologoarengana. Beraz, bere hitzetan: "Nik erabili det dena! Ospitala, Txarako zerbitzuak, Marijo, Nekane eta *ASPANOGI*ko dena!".

Ek ere erantzun berdina ematen du eta batez ere Nren beharra sentitu zuela azpimarratzen du. Hark lagundu zuela gehien eta hura sentitu zuela gertukoa, bertakoa.

ASPANOGIren jarduerari eta ekintzei buruz, elkarrizketatuak *ASPANOGI*ren jardueretan parte-hartzaileak izan dira oro-har.

Nk dio bere iritziz urteko jarduerarik esanguratsuena minbiziaren nazioarteko egunaren bueltan (otsailak 15) egiten den Ipar Martxa dela. Ikusgarritasunaren aldetik izugarritzko garrantzia duen martxa bat da, izan ere jarduera horretan biltzen dira haur minbiziaren inguruan profesionalak, zuzendaritza-taldea, langileak, eraginpeko familiak, boluntarioak, kolaboratzaileak, erakundeak... Hamaikagarren urtea izan omen da aurten eta Porrotx ere bertan izaten omen da beti. Oso ikusgarria izaten omen da. Bertan, esanguratsuena dena ondo irten dadin eragile

guztien artean egiten den elkar-lana da. Beste elkarrizketatuak ados daude egun hau oso berezia izaten dela. Jarduera honek izugarriko ikusgarritasuna ematen omen dio kausari eta inpaktu handiko eguna iruditzen zaie. A, L eta E joan izan dira maiz eta parte hartu izan dute boluntario bezala.

Nk aipatzen duen beste jarduera hunkigarri bat gabonetako ospitaleko festa izaten omen da. Porrotx ere bertan egoten omen da beti eta oso oso berezia izaten omen da, oso polita. Urteko momentu bakarrenetakoa izaten da umeak eta familiak ospitalean erlaxatuta ikusten direnak, pozez eta alaitasunean, musikaz eta dantzaz gurasoak eta ospitaleko profesionalak gozatzen. Oso garrantzitsua izaten den jarduera da eta familiengan inpaktu handikoa bere iritziz. Bizipoza sumatzen omen da egun horretan.

Lk argi dauka berak beti, hasieratik parte hartu izan duela jarduera horietan, Ipar Martxan batez ere, kausari ikusgarritasuna emateaz gain, jendeak izan ditzakeen aurreiritziak eta beldurrak kentzeko. Berak, horregatik, semearekin prozesuan hasi zenetik pare bat aldiz eman zituen egunkari ezberdinentzat elkarrizketak. Kausa ikustea nahi zuelako, naturalizatzea eta gizartean gaiari buruz hitz egiteko beldurra galtzea, estigmak kentzea.

Lk gainera, umeentzako liburu bat argitaratu zuen non azaltzen den umeen hizkuntzan leuzemia zer den. Liburuagatik jaso dituen mezuak izugarri positiboak izan omen dira eta gainontzeko gurasoei asko lagundu diela esan dietela dio. Oso pozik dago liburuarekin leuzemia ikusgarri bihurtzea eta naturalizatzea lortu delako, gizartean inpaktu hori sortuaz. Oso asebeteta sentitu zen eta batez ere bere herrian, Lasarten jaso zuena izugarria izan zen.

Beste jarduera oso garrantzitsu bat Zarautzen antolatzen zen Moby-byke eguna izaten zen. Denak ados daude ikusgarritasun handia lortzen zela ekintza honekin, izan ere txirrindulari profesionalak egoten ziren antolaketan, hala nola, Markel Iri-

zar eta Aimar Zubeldia eta Porrotx ere bertan izaten zen. Familia guztiarentzat ekintzak egoten ziren eta egun-pasa eder bat egiteko aproposa zen. Inpaktu handiko eguna izaten zen hau ere elkarrizketatuentzat eta denak joan izan dira behin baino gehiagotan. Denek aipatzen dutena da *ASPANOGI*ren partaideek azaltzen duten indarra eta jartzen duten gogoia. Ekintza guztietan ikusten omen da bere iritziz alaitasun eta eromen hori. Sentitzen den zerbait omen da eta oso oso polita da. Gainera, jendearen parte-hartzea aipatu behar da, ekintza irekiak izaten direla alegia, ez bakarrik bazkideentzat. Eta irekia izate horrek ikusgarritasuna handitzen dio, inpaktu soziala handitu arazten dio.

Familien arteko harremanak bereziki estutzen diren jarduerak ere badira, esaterako Port Aventurako familientzako bidaia. Nk dioenez badira urte batzuk antolatzen dena bertan *ASPANOGI*ko helburu ere baden familien arteko harremanak bultzatzea lantzen da. Familia ezberdinen artean sortzen diren erlazioak izugarriak eta oso garrantzitsuak dira eta familia handiago horren parte sentitzen dira. *ASPANOGI* familia handiago bat bezala. Izan ere, prozesuan zehar seme edo alabaren bat galdu duten familiak ere joaten dira eta familia horiek, egoera hain mingarria izan arren, sekulako indarra adierazten dute eta harreman bereziak sortzen dira beste familiekin.

Ak aipatzen du beraiek askotan joan izan direla Port Aventurako bidaira eta oso positiboa dela beste familiak ezagutu, umeak beraien artean harremana izan eta haiekin kontaktua izatea. Alegia, beraiek bezelako egoera batetik igaro diren familiekin harremantzea. Gaixoaren anai-arreben kasua ere aipatzekoa da bere iritziz, izan ere, haiei ere beren tokitik egoera pairatzea egokitzen zaie, eta horrelako irteeretan bere egoera berdinean dauden beste anai-arrebekin esperientziak elkar-banatzeko aukera izaten dute. Bere iritziz egunak pasa ahala integratzen doaz, beraien artean oso ezberdinak izan arren, baina hala ere, harreman berezi bat sortzen da beraien artean.

Ek aipatzen duenez gainera, harreman berezi hori gerora ere mantendu egiten da. Izan ere, umetan minbizia pasatako orain gaztetxoak direnen artean talde bat sortu dute ere. Bere semeak parte hartzen du bertan eta ekintza eta jarduera ugari egiten hasiak dira beraien artean. Hori ere *ASPANOGI*k lortu duen zerbait da eta oso oso garrantzitsua da gazte horientzat.

Lk aipatzen duen beste ekintza garrantzitsu bat urteroko Ordizian ospatzen den Artzain eguna da. Bertan arkume pintxoak saltzen dira eta urtero bertatik ateratako dirua *ASPANOGI*rentzat izaten da. Jendea oso jakitun izaten da bertan egoten dela arkume postua eta sekulako ilarak egiten dira pintxoak lortu ahal izateko. Ek eta Ak ere aipatzen dute beraiek ere egon izan direla bertan arkumea saltzen eta ekintza hunkigarri bezain polita izaten dela.

Galderen azken blokea, elkarrizketatu bakoitzarentzat *ASPANOGI*k zer suposatu duen azaltzea da edota zein den elkarrizketatu bakoitzarengan eragin duen inpaktua eta elkarrizketatu bakoitzaren iritziz *ASPANOGI*ren jarduerak gizartean eragiten duten inpaktua zein den aipatzea da.

Arentzat *ASPANOGI* bere familiarentzat "salvavidas" bat izan zen. Momentu txarrean ezerean truk norbait ate joka etortzea bere laguntza eskaintzera izugarria izan zen, euskarri bat. Hortik aurrera familia bat bezala izan dela dio, familia bat sortzen dela, momentu zailenetan etortzen zaizun laguntza hori onartzea oso erraza izan zelako eta bidea erraztu zielako.

L ere ados dago erantzun horrekin. *ASPANOGI*k berari eta bere familiari babesa eman zion, bere iritziz ez dago beste hitzik berak sentitu zuena deskribatzeko, babesa. Bere arabera, bere bizitza ezberdina izan da *ASPANOGI* ezagutu ondorenetik. Egoera zailenean horrelako maitasuna sentitzea izugarria dela dio. Lasaitasuna transmititzen omen du *ASPANOGI*ko lan-taldeak.

Ek ere antzeko erantzuna ematen du. Izan ere, berak goraiatzan du bizitzako momentu hain gogorretan hartzen zaituzten goxotasuna, oso goxo eta oso ondo sentitu arazi omen zioten eta erakutsi zioten babesaren izugarria izan omen zen. Orduz geroztik, laguntza jasotzeko familia bat bezala sentitzen omen du *ASPANOGLI*.

Nren iritziz, *ASPANOGLI*k gizarteari ematen diona, eskaintzen dituen zerbitzu guztiez gain (Piratenea, aparkalekua, bazkari txartelak, telebista abonua...), haur minbiziaren kausari normaltasuna, naturaltasuna ematea da. Bere iritziz, haur minbiziari buruz ez da askorik hitz egin duela urte gutxi arte eta naturaltasunez hitz egin behar da. Hori, Gipuzkoan *ASPANOGLI*ren bitartez asko lortu da. Oso kausa gogorra da, eta nabaritzen du gizartean gero eta lasaiago, segurtasun handiagoarekin eta naturaltasun handiagoarekin hitz egiten dela gaiaz. Berak dioenez gizartean asko aurreratu da zentzu horretan eta gainera horrek lortu du *ASPANOGLI* erreferente bilakatzea beste haur minbiziaren lantzen duten *IAGE*entzat.

A eta Lk ere antzeko erantzunak eman dituzte. *ASPANOGLI*k kausaren ikusgarritasuna lortu du. Aren iritziz, ikusgarritasun hori lortzeko *ASPANOGLI*k izugarritzko lana egin du atzeko urte hauetan. Lk adibidez dio, bera Lasartekoa dela eta orain herritar guztiek ezagutzen dutela elkarteak. Bere iritziz hori oso garrantzitsua da, jendeak beldurra kendu diezaion haur minbiziari buruz hitz egiteari. Ek ere berdina aipatzen du. Goierri aldean ere izugarritzko ikusgarritasuna lortu du haur minbiziaren kausak eta askoz ere lasaiago hitzegitea lortu da gaiari buruz.

Nk dio, ikusgarritasun hori lortu izanaren beste arrazoietako bat ikastetxeetan egiten ari diren lana dela. Bertan, azken urteetan, gero eta hitzaldi eta elkarrizketa gehiago ematen dituzte *ASPANOGLI*ko langileek eta horrek laguntzen omen du haur eta nerabeen artean ere naturaltasunez gaia lantzea. Aren iritziz, hitzaldi hauek ere balio dute ikasle hauek etxean ere gertuko minbiziari buruz (haur zein

heldu) lasaitasun handiagoz hitz egitea. Honek lortu du *ASPANOGI* erreferentea izatea Gipuzkoan minbiziaren gaian.

Pirateneari buruz ere, izugarriko funtzioa egiten duela aipatzen du Nk. Azken hilabeteetan familia estatu batuar bat egon omen da bertan bizitzen, sei hilabeteko haurra hemen oportretan zebiltzala minbiziaz gaixotuta. Haien esker ona izugarria izan omen da eta beraiengan izan duen eragin positiboa itzela.

Bestalde, elkarrizketatu guztiek aipatzen dute *ASPANOGI*k duela urte batzuk lortu zuen haur minbizidunentzat etxez etxeko eskola zerbitzua izugarria dela. Nk dio zerbitzu hori, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailarekin elkarlanean, handituz joan dela urtez urte. Gaur egun, zerbitzu hori batxilergo ikasleentzat ere iristen omen da. Ak, Lk eta Ek aipatzen dute erabili zutela zerbitzu hau eta abantaila izan zela beraien semeentzat. Izan ere beraientzat klasea bakarrik izatean asko aurreratzen zuten material eta gainera, guraso eta medikuek gain beste pertsonaren batekin harremanak baimentzen zien gaztetxoei. Era berean, familiako gurasoak libreago geratu zitezkeen momentu horietan beraien lanak aurreratu ahal izateko.

Azkenik, aipatzekoa da ere, araudi aldetik elkarrizketatuek aipatzen dituzten aurrerapenak *ASPANOGI*ri esker. Nk aipatzen du momentu honetan Osakidetza-rekin dagoen hitzarmena dela horren adierazgarri. Onkologia pediatrikoa adinez nagusi izan arte izatea lortu da horrek gaztetxo gaixoarentzat dakartzan abantailekin eta ospitalean *ASPANOGI*ren presentzia bermatzea lortu da. Honek, familiekiko gertutasuna, goxotasuna eta babesa era egokiago batean eskaintzea bermatzen du.

Era berean, gaixotasun onkologikoa ahazteko eskubidea ere onartu da (derecho a olvido oncológico), alegia, behin gaixotasuna gaindituta, gaixotasuna pasa izanagatik diskriminatua ez izateko eskubidea. Lorpen honetan, *ASPANOGI*ren indarrak ere zerikusia izan omen zuen.

Elkarrizketa amaitzeko, elkarrizketatu bakoitzari galdetu zaio berarentzat zer den minbizia eta berarentzat zer den *ASPANOGI*, hitz edo esaldi batean erantzuteko. Hauexek haien erantzunak:

Zer da zuretzat minbizia?

A: Kolpe latz bat baina baita erakusketa bat ere, gauzak erlatibizatzen ikastea

N: Kaosa, tsunamia

L: Faena bat baina bizitza ulertzeko beste modu bat ere, gogortuago atera arazten zaituena.

E: Momentu gogorra..., momentu oso gogorra... oilo ipurdikoa.

Zer da zuretzat *ASPANOGI*?

A: "Salvavidas" moduko bat garai hartan eta gaur egun, familia txiki bat. Geratzen den sentimendu fuerte bat.

N: Familia bat, eredu bat, indarra.

L: Nik aukeratutako familia bat... Eta betirako familia bat.

E: Familia bat, laguntza hartu eta jasotzeko familia bat.



5.1 irudia: Egindako elkarrizketetan jasotako erantzunen gainean osatutako hitz-hodeia, termino ohikoenak azaleratzen dituena. Iturria: autoreak sortua.

Hurrengo urratsa *ASPANOGI*ko *stakeholderrak* identifikatzea eta inplikatzea da. Urrats hau *SROI*ren funtsezko ezaugarri bat da, fokua kostu-onura analisisian jartzten duten beste metodologia batzuetatik bereizten duena. Interesdun edo *stakeholder* horiek prozesuaren fase guztietan parte hartzeak komunikazioa eta ikaskuntza errazten ditu, parte hartzen duten alde guztiek erraz ulertzeko moduko ikaskuntza erabiliz. Gainera, erakundearen misioa eta estrategia argitzen ditu (Mook et al., 2015).

Zehatzago, Mitchell et al. (1997)en *stakeholderak* identifikatzeko metodologia bati jarraituz, *stakeholderak* identifikatu eta izendatu dira eta bakoitzari puntuazio bat eman zaio: altua (3 puntu), ertaina (2 puntu), edo baxua (1 puntu) hiru dimentsiotan: a) eragina (alderdi interesatuaren indarra eragin aldetik erakundearen, zenbat eta handiagoa izan enpresaren politikak ezartzerakoan, orduan eta handia-

Stakeholderak	E	B	I	G	L
Eraginpeko familiak	3	3	3	9	1
Eusko Jaurlaritzza	3	2	2	7	3
Gipuzkoako Foru Aldundia	3	3	2	8	2
Espainiako Haur Minbizidunen Federazioa	2	2	3	7	5
Boluntarioak	2	1	3	6	4
Bazkide laguntzaileak	1	2	2	5	6
Enpresa laguntzaileak	1	2	2	5	7
Asion	1	1	1	3	0
Vila Veschia Fundazioa	1	1	1	3	0
Roland MacDonalden etxea	1	1	1	3	0
Sucklis etxea	1	1	1	3	0
Afanoc	1	1	2	4	0

5.1 taula: Stakeholderren identifikazioa. *Stakeholder* bakoitzarentzat erabiltzen diren dimentsioak zehazten dira taulan **E**ragina, **B**oterea, **I**nteresa, **G**uztira eta **L**ehentasuna zutabeetarako. Dimentsioen eskala: 1 (baxua); 2 (ertaina); 3 (altua). Iturria: autoreak sortua Ariza-Montes et al., 2021-ean oinarrituta

goa izango da bere eraginaren maila; b) boterea (alderdi interesatuaren boterea), eta, c) organismoan esku hartzeko interesa (alderdi interesatuaren presentzia). Hiru puntu partzialak batuz gero, 3 eta 9 puntu artean dago. 5.1. Taulan ikus dezakegunez, puntuazio hori erabiltzen da *ASPANOGI*ko *stakeholder*en artean lehentasun-ordena ezartzeko.

Hausnarketa honen ondoren, aurreko taulan ikus daiteke *stakeholder* batzuk azterketa eremutik kanpo utzi direla. Hori gertatu da, erabilitako eskalan, hiru dimentsioak kontutan hartuta (eragina, boterea eta interesa) 5 puntutik behera lortu duten *stakeholderekin*. Gainontzeko *stakeholderak* kontutan hartu dira azterketarekin jarraitzeko, hiru dimentsioak kontutan hartuta 5 puntutik gora lortutako *stakeholderak* direlako.

Elkarrizketa hauen bidez inplikaturako eragile bakoitzaren ikuspegia lortu da eta prozesuaren ikuspegi orokorra lortu da.

5.3 Teknika kuantitatiboa. *SROI*

Aurreko kapituluak adierazi den bezala, azterlan honetan inpaktu soziala baloratzeko aplikatuko den teknika *Social Return On Investment (SROI)* eta mozkin-kostua aztertzeke metodologietan oinarritzen da. Horregatik, emaitzak baloratzeko, metodologia horretan dauden prozesuak eta ratioak erabiliko dira, eta horrek aukera emango du emaitzak entitate anglosaxoiek baloratutako proiektuetan lortutakoekin alderatzeko (aurreko kapituluak aipatu izan den bezala haiek baitira teknika hau aplikatu izan duten lehen herrialdea).

Aurkezten diren datu monetarioak alde batera utzita, esan beharra dago inpaktu sozialaren analisisen zati garrantzitsu bat zenbakizko datuak testuinguruetan jartzean datzala, proiektuen historia lanaren inguruan kontatuz eta adierazleen bidez lortutako informazio kualitatiboa aurkeztuz. Ebidentzia jasotzeko urratsak aurkeztean adierazi den bezala, badira beste teknika batzuk (elkarrizketak gure kasuan), modu kualitatiboan programaren ebaluazioan lagundu dutenak.

Gainera, emaitzak hobeto ulertu daitezten, proiektuen eta *inputen* jatorria eta oinarritzko ezaugarriak azaldu ditugu *ASPANOGI*ren barruan aztertu beharreko programari buruzko informazioa ematerako garaian.

Lortutako emaitzen azterketaren abiapuntu gisa, *input* guztiak eta horien kuantifikazioa biltzen dituen laburpen-taula bat egin dugu (5.2. Taula), *stakeholderak* zehazteko garaian egindako sailkapena kontuan hartuta:

5.2. Taulan ikus daitekeenaren arabera, 2023 urtean *Input* monetarioen zenbatekoa 114.106,26€tako izan da, zenbateko horren xehetasuna jarraian azaltzen delarik:

Stakeholderak	Kontzeptua	Zenbatekoa
1.- Eraginpeko familiak	Urteko kuotak	13.760,00€
2.- Eusko Jaurlaritza	Hirugarren sektoreari laguntzak	18.095,90€
3.- Gipuzkoako Foru Aldundia	Akordioa	52.019,00€
4.- Haur minbizidunen Espainiako Federazioa	Diru-laguntza	4.443,86€
5.- Boluntarioak	Denbora baliabide eta baliabide materialak	0,00€
6.- Bazkide laguntzaileak	Diru-laguntza	10.150,00€
7.- Enpresa laguntzaileak	Diru-laguntza	15.637,50€

5.2 taula: Inputen kuantifikazioa. Guztira *inputak* = 114.106,26€. Iturria: autoreak sortua.

1. Eraginpeko familia bakoitzak *ASPANOGI*ra atxikitze eskaera orri bat betetzen du, non azaltzen den familiaren urteko bazkide kuota 70€koa izango dela (2. eranskina). 2023. urtean, familia bazkideen kuoten kontzeptuan, 13.760€ jaso dira.
2. Eusko Jaurlaritzak urtean ematen duen zenbatekoa Kolaborazio Hitzarmen baten ondorio da (3. eranskina). Hitzarmen horrek zera dio:

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 19(e)koa, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2023ko urtarrilaren 18ko Aginduak deitutako Hirugarren Sektorerako laguntzak 2023 deialdiko eskaerak ebazten dituen. Agindu honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ABENDUAREN 4KO 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2023ko deialdia egiten da.

AURREKARIAK

- (a) 2012ko abenduaren 18a, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze soziala-

ren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua argitaratu zen EHAAn.

- (b) 2023ko urtarrilaren 25(e), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 18(e) Agindua argitaratu zen EHAAn. Honen bitartez, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2023ko deialdia egiten da.
- (c) 2023ko otsailaren 23an argitaratu zen EHAAn Gizarte Politiketako sailburuordearen 2023ko otsailaren 13ko Ebazpena, kide anitzeko organoetako kideak eta idazkaria izendatzen dituen. Organo horiek egingo dute abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak araututako laguntzei buruzko ebazpen-proposamena.
- (d) Diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuaren 13. artikulua betez, aipatutako Balorazio Batzordeak Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariari igorri zion Ebazpen-proposamena, eskabideen ebazpena eman zezan.

Ondorioz, eta Balorazio-Batzordeak egindako Ebazpen-Proposamena aztertuta, ondokoa ebazten zen:

Lehenengoa.- I. II III eranskinean jakinarazten diren erakundeei dagozkien dirulaguntzak adjudikatzea (eranskina).

Zehazki, hitzarmenaren 31. orriak zera dio: 2023-HSD-000980 *ASPANO*GI ASOCIACIÓN DE PADRES DE NIÑOS ONCOLÓGICOS DE GIPUZKOA ATENCIÓN INTEGRAL DE LA/EL MENOR CON CÁNCER Y SU FAMILIA 18.095,90€

- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtean ematen duen zenbatekoa Kolaborazio Hitzarmen baten ondorio da (4. eranskina). Hitzarmen horrek zera dio:

Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 73. artikuluan xedatutakoari jarraituz, euskal administrazio publikoek hitzarmenak egin ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateekin, sustatzeko gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio edo zerbitzu batzuk eskuratzea, eta sustatzeko, baita ere, gizarte zerbitzuen eremuko beste jarduera batzuk egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiari interesgarria iruditzen zaio *ASPANOGI*k minbizia duten haurren alde egindako lana, eta ontzat jotzen du lankidetzak hitzarmen bat sinatzea bi alderdien arteko harremanak arautzeko, baldintza batzuen arabera.

Hitzarmen honen arabera, *ASPANOGI*ren betebeharrak hauek dira:

- (a) Administrazioari behar den aurrerapenaz komunikatzea eskainitako zerbitzuetan izandako edozein aldaketa edo bariazio eta, bereziki, plantilaren kualifikazioan edo konposizioan izandako edozein aldaketa.
- (b) Administrazioari laguntzea, beti, ikuskapen, fiskalizazio eta auditoretza lanetan, eta bereziki, eskatzen dion eta hitzarmenaren gauzatzea balioesteko beharrezkoa den informazio guztia ematea hainbat arlori buruz - ekonomikoa, fiskala, laborala, teknikoa, asistentziala eta beste edozein eratakoa-, datuen babesari buruzko legeei eta aplikagarri diren gainerako arauetara jarraituta.
- (c) Jarritako herri funtsen gainean Administrazioako organo eskudunei dagozkien finantza kontroleko jardueren mende jartzea.
- (d) Gipuzkoako Foru Aldundiari edozein diru laguntza, dohaintza edo ekarpen pribatu jakinaraztea, baldin eta hitzarmen honetan jasotako jarduerak finantzatzeko helburua badute.

- (e) Prestazioaren edo zerbitzuaren tipologiaren arabera aplikatzekoak diren baldintza material, funtzional eta pertsonalei buruzko arauak betetzea.
- (f) Kalte-ordainak ematea zerbitzuak erasandako hirugarrenei, non eta kaltea ez den eragin Administrazioari egoztekoak diren arrazoiengatik.
- (g) Langileei ordaintzea hitzarmen kolektiboaren edo lan hitzarmenaren arabera eta kategoria profesionala kontuan hartuta dagozkien ordainsariak.
- (h) Zerga nahiz Gizarte Segurantza arloetako bere betebeharrak zuzenean betetzea, betetze hori Gizarte Politikako Departamentuarekin sinatutako hitzarmenaren bilakaeraren baldintzapean jarri gabe.

Aldiz, hitzarmen honen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak hauek dira:

- (a) *ASPANOGI*ri ordaintzea adostutako zenbatekoa, ezarritako baldintzen arabera, hitzarmenak xedetzat dituen zerbitzuei eta prestazioei eusten laguntzeko.
- (b) Modu frogagarri batean jakinaraztea *ASPANOGI*ri sinatutako hitzarmenean eragin nabarmena izan lezakeen edozein inguruabar, baldin eta berekin ekarriko balu hitzarmena aldatzea, berritzea edo suntsiaraztea, eta delako inguruabarra indarrean jarri baino 3 hilabete lehenago jakinarazi behar zaio.

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat justifikazioa, egindako jardueren kostua egiaztatutako duen memoria ekonomiko baten bidez egingo da, eta orokorrean ondoren adierazten den dokumentazioa jasoko du:

- (a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua; bertan agertu behar

dira hartzekodunaren identifikazioa eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, sortze data eta ordainduta badago, ordainketa data.

- (b) Fakturak edo merkatuko trafiko juridikoan pareko froga balioa duten gaine-rako dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak, eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- (c) Beste sarrera eta diru laguntza batzuen zerrenda, baldin eta diruz lagundu den jarduera finantzatu badute. Zenbatekoa eta jatorria zehaztu behar dira.

Hitzarmen horren arabera, 2023an *ASPANOGI*k 52.019,00€ jaso ditu (5.eranskina).

- 4. Haur minbizidunen Espainiako Federazioa. Urtean ematen duen zenbatekoa Kolaborazio Hitzarmen baten ondorio da (6. eranskina).

Kolaborazio Hitzarmen honen bitartez, minbiziaren diagnostikoaren ondoren sor-tzen diren problematikei erantzun bat eman nahi zaie, haurraren, kaltetutako nerabearen eta haren familiaren ongizatearen alde eginez. *ASPANOGI*ren esku-hartze soziala gaixotasunaren eta haren garapenaren eraginpean dauden eremu guztietan egiten da: afektibo emozionala, ekonomia, lana, hezkuntza eta gizar-tea. Helburu orokorra haurrari, nerabe onkologikoari eta haren familiari arreta psikologiko integrala eskaintzea da, gaixotasuna igarotzen eta tratatzen hasten den unetik bertatik, ospitaleetan eta ospitalez kanpo, gerta daitezkeen gaixoberri-tzeen eta egoera konplikatuena aurrean lagun egiten dieten jarduera psikologikoak eta jarraipena garatuz.

Akordio honen pean, *ASPANOGI*k konpromisoa hartzen du programaren memo-ria bat aurkezteko, honako puntu hauek jasoko dituen:

- Egindako gastuak eta inbertsioak.
- Programa egiten duen taldearen datuak.
- Parte hartu duten boluntarioen kopurua.
- Beste langile batzuk.
- Programa gauzatzea.
- Aurreikusitako helburuen betetze-maila.
- Aurreikusitako egutegiaren betetze-maila.
- Jardueraren izenburua.
- Honen deskribapena eta balorazioa.
- Gauzatzean izandako gorabeherak.

Era berean, *ASPANOGI*k konpromisoa hartzen du Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioaren logotipoa argitaratzeko, adierazitako programaren kargura egindako jardueri dagokienez, programa honen publizitate- edo informazio-euskarri izango diren sare eta hedabideetako argitalpen mota guztietan, liburuxketan, karteletan eta abarretan.

*ASPANOGI*k konpromisoa hartzen du Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioak eskatzen duen programari buruzko edozein informazio emateko, federazioak berak ezartzen duen epean.

*ASPANOGI*k hitzarmen honen edukia betetzen ez badu, esleitutako zenbatekoari buruzko justifikazioa egiten ez badu, emandako zenbatekoa Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari itzultzeko konpromisoa hartzen du. Programa osoa exekutatzeko ez badu, justifikatu gabeko zatia itzuli beharko du.

Hitzarmen honen arabera, *ASPANOGI*k 2023. urtean 4.443,86€ jaso ditu.

5. Boluntarioak. Denbora eta baliabide materialak jartzen dituzte. Ekintzetan parte hartzen dute baina momentuz behintzat ez da erregistro zehatzik eramaten *ASPANOGI*n. Boluntario ezberdinek ekintza jakin batzuetarako izena ematen dute eta hitzarmen edo bestelako lotura-harremanik gabe parte hartzen dute.
6. Bazkide laguntzaileak. Kasu honetan ez da hitzarmenik adostu eta sinatzen. Bazkide bakoitzak erabakitzen du noiz eta zenbat euroekin egin nahi duen *ASPANOGI*rentzat diru ekarpena. 2023. urtean kontzeptu honen pean 10.150,00€ jaso ditu.
7. Enpresa laguntzaileak. Kasu honetan ez da hitzarmenik adostu eta sinatzen. Bazkide bakoitzak erabakitzen du noiz eta zenbat euroekin egin nahi duen *ASPANOGI*rentzat diru ekarpena. 2023. urtean kontzeptu honen pean 15.637,50€ jaso ditu.

Honen guztiaren ondorioz, aipatu den gisan, 2023. urtean *ASPANOGI*ren *INPUT*etan 114.106,26€ osatu dira.

*INPUT*ak kuantifikatu ondoren, aurreko kapituluan adierazi den bezala, *OUTCOME* bakoitza neurtzeko adierazlea eta finantza *proxy*ak ezarri dira. 5.3. Taulak *SROI* analisi honetan erabilitako adierazle eta *proxy*en zutabeak ematen ditu *Output* eta *Outcome* bakoitzerako. *Outcome* bakoitzarentzat aurreko kapituluan aipatutako teknikak jarraitu dira.

INPUT	OUTPUT	OUTCOME	NEURTZEKO ADIERAZLEA	FINANTZA-PROXY
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Atsedén etxea	Tratamendu garaietan probintzian zehar bizi diren familientzat joan-etorriak sahestea	Tratamendua jasotzeko joan-etorrietan saihestutako kilometro-kopurua eta kostua gau bakoitzeko hotelan	Gasolaren prezioa 2022an. 3 izarreko hotelaren batazbesteko prezioa/gaueko Donostian
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Janari txartelak	Zaintzailearentzat eguneroko janari beroa	Enandako menu kopurua eta menu bakoitzaren prezioa	Donostia Ospitaleko kantinako menuaren prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Diruzkoak ez diren laguntzak	Adingabearen gaixotasunarekin lotutako gastuen kontura ordaintzea (joan-etorriak, farmazia, elorzketak, dietak, etab.), inongo administrazioak itzuli ez badizkio familiari	Familiak aurrezkitutako gastu horien zenbatekoa	2022an zerbitzu horien prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	CUME (adingabeak zaintzeagatik prestazioak)	Gizarte Segurantzaren prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea	Artekaritza zerbitzuek kobratzen duten prezioa	2022an Artekaritza zerbitzu horien prezioa Donostiako Artekaritza zentru batean
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Deribazioak	Joan beharreko ospitalea dagoen hiriko ostatuak kudeatzea, familiei laguntza ematea lekualdatzean eta erreferentziarako elkartearekin harremana kudeatzea helmugako hirian.	Bidai agentzia batek eta artekaritza zerbitzuek kobratzen duten prezioa	2022an Donostiako Bidai agentzia batek eta Artekaritza zerbitzuek kobratzen duten prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Ardurapeko seme-alabagatik prestazioa	Gizarte Segurantzaren prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea	Artekaritza zerbitzuek kobratzen duten prezioa	2022an Donostiako Artekaritza zentru batean prestazio hori kudeatzeagatik kobratzen duten prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Osakidetza gastuen itzulketak	Autonomia erkidegotik kanpoko ospitaleetara bideratzeak eragindako gastuak itzulzeagatik familiei itzultutako dirua	Tratamendua jasotzeko joan-etorrietan saihestutako kilometro-kopurua eta kostua gau bakoitzeko hotelan	2022an gasoilaren prezioa. Familiek gaua pasatako hotelako prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Aparkaleku plaza	Ospital atarian aparkaleku bat doan uztea	Ospital atarian aparkatzeak daukan prezioa	2022ko Ospitaleko parkin egun bateko prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Telebista txartelak	Ospitaleko logeletan telebista ikusteko txartela doan uztea	Ospitaleko logeletan telebista ikusteko txartelaren prezioa	2022ko Ospitaleko logelan telebista ikusteko txartelaren prezioa
Dirutan neurtua (urteroko bazkide kuota)	Familiartekoentzako atsedén gela ospitalean	Ospitalean atsedén hartzeko gune bat doan uztea, bainugela, dutxa, hozkailua, mahaia eta aukiak eta sofa batekin	Hotelan gau bakoitzeko prezioa	3 izarreko hotelaren batazbesteko prezioa/gaueko Donostian

5.3 taula: *Input, Output, Outcome, neurtzeko adierazleak eta finantza-proxyak.*

Ondoren, eta 5.3. taularen irizpideak jarraituz, *Output* bakoitzeko finantza *proxyak* kuantifikatu dira, 2023. urterako:

1. Atsedeen etxea:

Atsedeen etxea 177 egunetan erabili da. Hiru familiek erabili dute:

(a) Familia: Ermua

Saihestutako kilometroak: 5040km.

Sahiestutako bidesariak: 666,12€.

Zenbat kilometro sahiestu dira? 5040km.

Eraitza 1. Familia:

$$1,64€ * 5040km = 8.265,60€ + 666,12€ = 8.931,72€$$

(b) Familia: Ermua

Sahiestutako kilometroak: 4920km.

Sahiestutako bidesariak: 650,26€.

Zenbat kilometro sahiestu dira? 4920km.

Eraitza 2. Familia:

$$1,64€ * 4920km = 8.068,80€ + 650,26€ = 8.719,06€$$

(c) Familia: Elgoibar

Sahiestutako kilometroak: 2112km.

Sahiestutako bidesariak: 267,52€

Zenbat kilometro sahiestu dira? 2112km

Eraitza 3. Familia:

$$1,64\text{€} * 2112\text{km} = 3.463,68\text{€} + 267,52\text{€} = 3.731,20\text{€}$$

Guztira kilometro eta bidesaritan saihestutakoan:

$$8.931,72\text{€} + 8.719,06\text{€} + 3.731,20\text{€} = \mathbf{21.371,98\text{€}}$$

Gasoilaren prezioa: “*Noticias trabajo 29/12/2023 Economía: Si miramos a Europa, el precio de la gasolina sin plomo de 95 en España se mantiene por debajo de la media de la Unión Europea, situada en 1,670 euros el litro, y de la eurozona, con un precio medio de 1,717 euros. En cuanto al diésel, España también presenta precios inferiores a la media de la UE, que es de 1,614 euros, y de la zona euro, donde el precio medio es de 1,667 euros.*”

2023an zenbat gauetan erabili da Piratenea? 177

“Diario vasco 22/08/2023 el precio medio de un hotel de dos estrellas y pensiones en Donostia se sitúa en 117,30€ en el 2023.”

Guztira Hoteletan saihestutakoa:

$$117,30 * 177 = \mathbf{20.762,10\text{€}}$$

EMAITZA GUZTIRA ATSEDEN ETXEA:

$$21.371,98\text{€} + 20.762,10\text{€} = 42.134,08\text{€}$$

2. Janari txartelak:

2023an zehar *ASPANOGI*k 541 menu txartel eman ditu. Donostiako Ospitaleko kantinan menu txartel bakoitzak 11,50€ balio ditu.

Emaizta: Emandako txartel kopurua * menu bakoitzaren prezioa

EMAITZA GUZTIRA JANARI TXARTELAK:

$$541 * 11,50€ = 6.221,50€$$

3. Diruzkoak ez diren laguntzak:

Kontzeptu honen pean adingabearen gaixotasunarekin lotutako gastuak sartzen dira (joan-etorriak, farmazia, ehorzketa, dietak, etab.), inongo administraziok itzuli ez badizkio familiari.

ASPANOGIk 2023an kontzeptu hauen kontura 350,40€ ordaindu ditu. Madrilera bideratuak izan ziren bi familien desplazamentu gastuei dagokie (familia bati 200€ eta besteari 150,40€).

EMAITZA GUZTIRA DIRUZKOAK EZ DIREN LAGUNTZAK:

$$350,40€$$

4. CUME:

Gobierno de España, Ministerio de Inclusión, Seguridad Social y Migraciones: Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazioa da. Bere helburua, langile gurasoek edo adopzio-hartzaileek diru-sarreretan

izaten dituzten galerak orekatzea da, lanaldia eta soldata murrizten dutelako ardurapean duten adingabea zuzenean, modu jarraitu edo iraunkorrean zaintzeko, minbizia edo legez ezarritako gaixotasun larriren bat duelako.

Prestazio honen onuradunak hauek dira: Besteren konturako edo bere konturako langileak, edozein dela haien sexua, lanaldia gutxienez %50 murrizten badute adingabea zaintzeko. Bi gurasoek edo adopzio-hartzaileek eskubidea jasotzeko eskubidea badute, bietako bati bakarrik onartuko zaio.

Prestazio honen kausatzaileak hauek dira: Onuradunaren kargura dauden 18 urtetik beherako seme-alabak edo etxean hartutako adingabeak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 190. artikuluan aurreikusitako adina izan ezik, honako hauengatik zainketa zuzena, jarraitua eta iraunkorra behar dutenak:

- Minbizia edo iraupen luzeko ospitaleratzea eskatzen duen edozein gaixotasun larri badute.
- Tratamendu medikoa etxean jarraitu behar badute, diagnostikoaren eta ospitaleratzearen ondoren.

Prestazio honen baldintzak hauek dira:

- Gurasoek edo adopzio-hartzaileek, familia-unitate bakoitzean, afiliatuta edo alta emanda egon beharko dute Gizarte Segurantzaren erregimen publikoren batean edo dagokion elkargo profesionalak ezarritako Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean.
- Eskatutako kotizazio-aldia izatea:

21 urtetik beherakoak: ez da gutxieneko kotizazio epea eskatzen.

21 urte eta 26tik beherakoak: atsedena dia hasi aurreko 7 urteetan 90 egun kotizaturik izatea edo, txandaka, 180 egun kotizatuta lan-bizitzan zehar.

26 urtetik gorakoak: atsedena dia hasi aurreko 7 urteetan 180 egun kotizaturik izatea edo, txandaka, 360 egun kotizatuta lan-bizitzan zehar.

- Gizarte Segurantzaren kuoten ordainketan egunean egotea.

2023an *ASPANOGI*k 14 CUME berri tramitatu ditu eta beste 3 CUMEren luzapenak tramitatu ere ditu.

Villabonako Artekaritza zentru batean CUME berri bat tramitatzeak 130€ balio du eta luzapenak tramitatzea, 70€. Beraz:

EMAITZA GUZTIRA CUME:

$$(14 * 130\text{€}) + (\text{€}) = 2.030\text{€}$$

5. Deribazioak:

Kasu honetan, helmugako hirietako ostatuak kudeatzea, familiei joan-etorrietan laguntzea eta helmugako hirian erreferentziazko elkartearikiko harremana kudeatzea izaten da *ASPANOGI*ren ekarpena. 2023an hauek izan dira emandako laguntzak:

Bartzelona deribatu diren 4 familiei Ostaturia bilatzea helmugako elkarteen pisuetan, eta laguntza psikosoziala. Ekarpene hau, Gizarte Langilearen soldataren barne hartuko da.

Bilbora deribatu den familia bati Ostaturia bilatzea helmugako elkarteen pisuetan,

eta laguntza psikosoziala. Ekarpen hau, Gizarte Langilearen soldataren barne hartuko da.

Madrilera deribatu diren 5 familiei Ostatua bilatzea helmugako elkarteen pisuetan, eta laguntza psikosoziala. Ekarpen hau, Gizarte Langilearen soldataren barne hartuko da.

EMAITZA GUZTIRA DERIBAZIOAK:

0€

(Gizarte Langilearen soldataren barneko lantzat hartuko baita).

6. Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa:

Kontzeptu honen pean Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzeko beharrezko dokumentazioa kudeatzea sartzen da eta 2023an 5 familia artatu dira zentzu honetan. Familia bakoitzak jaso duen diru kopurua 1.000€koa izan da.

EMAITZA GUZTIRA ARDURAPEKO SEME-ALABAGATIKO PRESTAZIOA:

$5 * 1.000€ : 5.000,00€$

7. Osakidetzako gastuen itzulketa:

12 familia izan dira itzulketa hauen onuradunak, 18 itzulketa eskaera tramitatuetan. Guztira, itzultako diruaren gutxi gora beherakoa, 16.200,00€tako izan da.

EMAITZA GUZTIRA OSAKIDETZAKO GASTUEN ITZULKETA:

16.200,00€

8. Ospital atarian aparkaleku bat doan uztea:

Urteko egun guztietan zehar, *ASPANOGI*k ospital atarian duen aparkalekua erabilgai uzten du behar duten familientzat. 2023. urtean egunero egunero erabilia izan da, eta aparkaleku horretako plaza baten kostua / eguneko 12,60€ da.

Guztira aparkalekuan sahiestutakoa:

$365 * 12,60€ = 4.599,00€$

EMAITZA GUZTIRA OSPITAL ATARIKO APARKALEKUA:

4.599,00€

9. Telebista txartelak:

Telebista txartel bakoitzak 18€ balio du eta 27 txartel banatu dira 2023an hala eskatu duten familien artean. Beraz, $18*27 = 486€$ aurreztu dituzte familiek.

EMAITZA GUZTIRA TELEBISTA TXARTELAK:

486,00€

10. Familiartekoentzat ospitalean atsedean gela:

2023an urteko egun guztietan erabili izan da *ASPANOGI*k familiartekoentzat ospitalean duen atsedean gela. Ezin izan da zehaztu familia bakoitzak egunero erabili izan duen ordu kopurua.

1. puntuan aipatutako erreferentzia bera hartu da:

“Diario vasco 22/08/2023 el precio medio de un hotel de dos estrellas y pensiones en Donostia se sitúa en 117,30€ en el 2023.”

Dena dela, kasu honetan, gauez lotarako erabiltzen ez den zerbitzu bat denez, eta gauerako egunaren 24 orduetatik herena kontuan hartuz, erreferentzia horren herena kendu dugu hurbilketa zehatzagoa izan dadin.

Beraz, atsedean gelaren balioa eguneko:

$$117,30€ * 2/3 = 78,20€$$

EMAITZA GUZTIRA OSPITALEKO ATSEDEAN GELA:

$$78,20€ * 365 = 28.543,00€$$

Hamar *Outcome* horiek bideratu ahal izateko, *ASPANOGI*k gizarte laguntzaile bat du kontratatuta, 2023ko datuei dagokionez, 1592 ordu lan egin dituen eta

horren kostua (Soldata eta Gizarte segurantzaren kontutan hartuta), 47.182,92€-takoa izan da.

EMAITZA GUZTIRA GIZARTE LANGILEA: 47.182,92€

5.4. Taula aurreko datuen laburpen bati dagokio:

<i>Outputak</i>	Zenbatekoa
1.- Atsedeen etxea	42.134,08 €
2.- Janari txartelak	6.221,50 €
3.- Diruzkoak ez diren laguntzak	350,40 €
4.- CUME	2.030,00 €
5.- Deribazioak	0,00 €
6.- Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa	5.000,00 €
7.- Osakidetzaren gastuen itzulketa	16.200,00 €
8.- Aparkaleku plaza	4.599,00 €
9.- Telebista txartelak	486,00 €
10.- Familiartekoentzako atsedeen gela ospitalean	28.543,00 €
11.- Gizarte langilea (Soldata + Gizarte segurantzaren)	47.182,92 €
<i>Guztira Outputak</i>	152.746,90 €
<i>Guztira Inputak</i>	114.106,26 €
<i>Guztira Outputak</i>	152.746,90 €
<i>SROI Emaizta</i>	1,34 €

5.4 taula: *Outputen* kuantifikazioa eta *Inputekin* alderatuta *SROI* emaitza. Iturria: autoreak sortua.

Aurreko taulak erakusten duen bezala, 114.106,26 euroko *input* baterako, *ASPANOGI*ren Arreta Integrareko Programaren barnean kokatzen den Gizarte-arretako proiektuak sortutako lehen mailako *stakeholderen* gizarte-kutxako fluxuen batura 152.746,90 eurokoa da.

Datu horiek erakusten dute proiektu hori finantzatzeko inbertitutako euro bakoitzeko 1,34 euroko balio soziala sortzen dela.

Emaizta horiek interesgarriak dira maila teorikoan eta baita praktikoan ere; izan ere, metodologia honekin, gizarte-proiektuak onuradun-kopuruaren arabera eba-

luatzetik, diru-zenbateko (balio monetario) batzuk izatera igaro gara, proiektuak onuradunengan eta *stakeholder*engan izan duen inpaktu soziala eurotan zein den erakusten dutenak.

Aipatu behar da gizarte-kutxako fluxuen emaitza horiek zenbateko handikoak izaten direla normalean, enpresen balorazio-emaitzekin eta finantza-ekonomiako analistek eta profesionalek erabilitako negozio-kutxako fluxuen deskontuekin alderatuta. Alde hori are esanguratsuagoa izan liteke, baldin eta inpaktu sozialaren balorazioan kontuan hartu izan bagenitu proiektuen alderdi kualitatiboak eta zeharkakoak neurtzen saiatuko liratekeen adierazle kuantitatiboak, hala nola gogobetetze pertsonala edo *ASPANOGI*ren zerbitzuak onuradunengan sortzen duen lasaitasun eta familia-kohesio handiagoa. Arrazoi horregatik kuantifikazioetan egin daitezkeen doikuntza gehigarriak kontutan hartu gabe ere, lortutako emaitzak ezin dira zuzenean konparatu enpresa-baloraziorako erabilitako finantza-kutxako fluxuekin, horietan ez baita sartzen gizarte-itzulkinen diru-balioa. Gure ereduan baloratzen ari garena ez da kontzeptualki finantza-kutxako fluxu bat, aztertutako enpresa-tipologia ere desberdina delako. Irabazi-asmoko enpresen helburu nagusia balio ekonomikoa sortzea da, eta gizarte-enpresetan eta *IAGE*etan, berriz, balio erantsi bat sortu nahi da enpresa normalizatu batean nekez lor dezaketen onuradunentzat. Horregatik, *IAGE*etan enpresa normalizatu bat baloratzeko finantza-kutxako fluxuetan inoiz sartzen ez diren baina gizarte-proiektuen bihotza diren kontzeptuak baloratzen dira.

Ondorioak, mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak

Ikerketa-lan honi amaiera emateko, seigarren eta azken kapituluak azterlanetik ateratako ondorio orokorrak laburbiltzen ditu, azterlanaren muga kontzeptual eta metodologikoak azaltzen ditu eta etorkizuneko ikerketa-ildoak proposatzen ditu, *IAGE*en jarduerak eragiten duten inpaktu sozialari buruzko ezagutzan aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

6.1 Ondorio orokorrak

Planteatutako ikerketa-helburuak eta azterlan honetan erabilitako metodologia kontuan hartuta, jarraian aurkezten da ikerketa-lan honetatik ateratako ondorioen zerrenda. Lehen zazpi ondorioak ekarpen teorikoei dagozkie eta zortzigarren, berderatzigarren eta hamargarrenak ekarpen praktikoei:

1. Azterlan honetan egindako ikuspegi ekonomiko nagusien azterketatik ondoriozta daitekeenez, agerian geratzen da ekonomia sozialak zeregin garrantzitsua duela sistema sozioekonomikoan. Alde batetik, non profit ikuspegiak

estatuaren eta merkatuaren arteko sektore bezala kokatzen du ekonomia soziala, estatuak eta merkatuak estaltzen ez dituen behar sozial ugari asetzea duelarik funtzio nagusi. Bestalde, sektorea merkatu kapitalistaren eta estatuaren artean kokatzen du, gizarte-premiak asetzeko funtzioa esleituz oro har, eta, horrela, gizarte-onurako poloa eratzen du (Esping-Andersen, 1993; Monzón eta Chaves, 2012). Salomon eta Anheierren lana (1998) eta Ad-da et al.-en lana (2008) oinarri hartuta, ikerlan honetan ekonomia soziala sektore parte hartzaile gisa ikusten da. Ekonomia pluralaren ikuspegiaren eskutik, sektore publikoa, sektore tradizional kapitalista eta ekonomia sozialaren sektorea modu orekatuan batera egotea proposatzen da. Sektore horren ezaugarria da bere erakundeak ez direla mozkinak maximizatzeko printzipioaren arabera gidatzen. Partaidetzako estatu bat ezartzea planteatzen da, sektore guztiek lekua izan dezaten, bakoitzak ondoren dakiten funtzioak bete ditzan. Ekonomia sozialak eta honen barnean IAGEak eredu sozioekonomikoan duen zereginaren azterketari buruzko ikuspegi teoriko guztiak aztertzeak balio izan digu IAGEen jarduerak eragiten duten inpaktu sozialaren ezagutzan aurrera egiteko.

2. Ekonomia sozialaren barruan kokatzen diren *IAGE*en emaitzak neurtzeko interesa azken hogeita hamar urteotan handia izan den arren, ikerlan hone-tatik haien jarduna neurtzea ez dela lan erraza ondoriozta daiteke, *stakeholder* heterogeneo baterako hainbat helburu eta emaitza kontuan hartzea eska-tzen baitu, batzuetan interes kontraerriak dituztenak (Kerlin, 2006). Gai-nera, *IAGE*ak oso dibertsifikatuak daude, hainbat esparrutan jarduten bai-tute, finantza-zerbitzuetan, enpresa-zerbitzuetan, nekazaritza, osasun- eta gizarte-zerbitzuetan, antolakuntza-egitura ezberdinekin eta irabazi-asmorik gabeko beste entitateekin eta irabazi-asmodun erakundeekiko loturarekin (Alter, 2004). Dibertsifikazio horrek informazio-behar desberdinak, *sta-*

keholderen itxaropen desberdinak eta *IAGE*en errendimendua ebaluatze-ko neurri posibleen aniztasuna ere ekar dezake (Herman eta Renz, 1997). Horrek zaildu egiten du edozein *IAGE*ri aplikatu daitezkeen esparru bakarria definitzea edozein esparru edo testuingurutan.

*IAGE*en errendimenduaren neurketa baliagarria izan liteke erabakiak hartzeko garaian. Neurketa horren bidez, *IAGE*eko kudeatzaileei beren aukerak bideratzeko eta negozio-eragiketen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko informazioa emango die (Arena eta Azzone, 2005). Prozesu horretan, jarraipena eta ebaluazioa funtsezkoak dira, erakundearen jarduerak eragiten duten inpaktuan *stakeholder* desberdinak inplikatzeke (Valcárcel et al., 2019).

